

# Zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 419586 - PREZIOA: 10 PEZETA

## UDAKO III-GARREN EUSKAL UNIBERTSITETEAZ

Guztiok dugu jadanik Udako Euskal Unibertsitatearen (U.E.U.) ezagutzarik zer bait. 1973an egin bait zuen beren lehen saioa, Donibane Lohitzunen; bigarrena 1974ean, toki berean, etahirugarrena aurten Uztaritzen (Laburdiko hiriburu zaharrean).

Zenbaitek pentsa lezake, «euskal unibertsitate» horren funtsa euskaraz emate hutsan datzala. Esan diezaiogun halakoari, guztiz erraturik dabilela. U.E.U.aren muina arras aberatsagoa izaki. Honen frogatzat hor dago aurtengo programa hosto buruetan irakurtzen dena: «Unibertsitate pertsonala eta iraunkorra, ez da gela pila handi bati eta erakunde bati lotua. Dinamiko izango da E.U.... irakasle ta ikasle taldeak osatua».

Horra. U.E.U.ak, euskaraz ezateaz gainera, ezagutzen dugun unibertsitate moldea ezbezalako beste zer bait izan nahi du: giza klase pribatuetan baten zerbitzutan egon partez, herrigoaren, herri indar bizien eragile, bultzatzaile eta harma izan nahi du. Hain zuzen ere, U.E.U.ak ongi daki UDAKO izate horren probisionaltasunaren berri: urtean zeharreko (neguko) unibertsitate bizi, askatzaile, herrikoien hasikin, idarokitzatzaile eta eragile izan nahi du.

Hain zuzen ere, lehen urteko U.E.U.ari klasikoarekiko lotura hertsuegia nabari zitzaioleko, bigarren urtekoari antolamendu guztiz herrikoia eman nahi izan zitzaion, eta besteren artean, maisu-hitzaldi tankeko ihardunaldi luzeak baztertzuz, molde demokratikoago eta elkar-lan-koia eman nahi izan zitzaion. Aurtengoan, hain zuzen, alderdi horixe izan da punturik nabarmenena: maisu-hitzaldirik gutxi, elkarrizketa moduko inhardunaldiak, nori musak zer bait eragin hura programan tartekatuz...

Giro-ingurumari hori gogotan hartu ulertzen ahal dira soil-soilik Uda-

ko Hirugarren Euskal Unibertsitateari egin kritikak. Hain zuzen ere, kritika gogorrik egin zaio, eta egiten ahal zaio, aurtengo saio honi. Baina, aipatu giro-ingurumari gogotan hartu gabe ihadun litekeenak zentzu kritikorik eza azalduko luke.

Aurtengoaren programak eskutan ukan dituenak badaki jadanik zeintzu izan diren lan sailak. U.E.U.aren erabiltzeko ziren gaiak, 9 sailetan banaturik ematekoak ziren: hizkuntzalaritza, zientzia, gizarte zientziak, antzerki-edergintza, ekonomia, zuzentza, filosofia-teologia, kazetalaritza, pedagogia. Baina, egiaz eman, oso gai gutxi eman da. Normalki funtzionatu dutenak, esan dezakegu, biok izan direla: hizkuntzalaritza eta zientzia. Beste zenbait, erdipurdika bakarrik landu da. Eta beste batzuek larru gorri geratu da.

Benetan penagarria izan da hurgune hori. Programa ikusirik, jende asko joan bait zen Uztaritzera sail konkreturen baten bila; horretarako, zenbait lan eta zenbait aukera uzten zuelarik, gainera. Penagarria benetan diot berriro ere, programaturiko zenbait sailen arduradunek ez

bide bait du kontutan hartu ere puntu hori: jendea lanpetuegi dabilela alegia alfer joan-etorrietan denbora galtzeko.

Baina, diodan beste behin, hori guztia ezin ulertuzkoa litzateke gorago aipatu giro-ingurumaria kontutan hartu gabe. Esango nuke, hain zuzen, U.E.U. honen hurgunea, hondo-hondoan, programaketa egiterakoan, sudurra urrunegi luzatu nahi izana dela: berriztapen bidean egin zitekeena baino urrunago jo nahi izana alegia.

Dena den, ez nuke inor ere Uztaritzetik ekarri ez dudana iritzi ezezkoiarekin utzi nahi. Zeren, funtsean, iritzi guztiz baikorra ekarri bait dugu aurtengo U.E.U.aren. Eta arrazoin ugariz:

a) programako lan sail asko landu gabe gelditzearen faltaz izan diren hurguneak gorabehera, egin den lana izugarria izan da;

b) ageriko frogak, hainbat jende ihardun izana da: berrehunen bat lagun; horietarik ehunetik 80-edo jarraikiro; etajakina, jende horrek guztiak elkar arteko loturak hertsia izan ahal izan ditu; ez da hori gutxi esatea egungo euskal herri atomizatu honetan

d) bertan ibili den jendeari, errealistago bihurtzeko aukera eman dio aurtengo U.E.U.aren, eta hain zuzen ere, aipatu hurguneak zirela medio. Guztiak jabetu bait dira, Euskal Unibertsitate berri, askatzaile eta herrikoia ezin egiten ahal dela gauetik goizera, pausuka pausuka eta urratsez urrats baizik, eta puntu hori ongi frogaturik gelditu da datorren urterako U.E.U.ari buruz egin diren proposamenduetan: U.E.U.aren antolaketa eta funtzionamendua egiteko orduan ezin eten da erabat eta bapatean unibertsitate tradizionalarekin. Izan ere, nola unibertsitate tradizionala hala berriko jendea, tramankulu bat ez, baina pertsonak izango dira: funtzio batetik bestera nahi bezala pasa-

## NON ZER

Mutrikuko zaharren omenez  
Andonegi . . . . 2 gn.

Gizona abere hutsa da  
Larresoro . . . . 3 gn.

Eamon de Valera  
Irastortza . . . . 5 gn.

Ipuin antzeko alegiak  
Muxika . . . . 6 gn.

Baionan I. U. T.  
Kanblon . . . . 7 gn.



Udako Unibertsitateko liburu denda.

tzen ez direnak. Zer bait egiterakoan, pertsona horiekin kontatu behar da.

Eta garbi ikusi da, unibertsitate tradizionalan dabilen jendea, irakasleak nahiz ikasleak, ezin igaro direla kolpetik unibertsitate molde berri batetara. Irakasleak nahiz ikasleak diot. Halaxe da. Aurtengoan arduradunek huts egin baldin badute, arrazoina, neurri handian, puntu honetan aurkitu behar da. Eta Euskal Herriko «irakasle jaunek» U.E.U.ari boicot egin baldin badiote, neurri handian, arrazoin horrengatik izan da. Baina, gauza bera gertatu da ikasleen aldetik ere. Bazen aurtengoan ikaslerik frango; baina, U.E.U.aren antolaketan hain bizkor eta gogatsuki lan egin duen Manex Goienetek behin eta berriz esan duenez, ikasleagoari, neurri handi batetan, inizatiba falta nabari izan zaio: arduradunen falta ikusirik, ez du jakin ordainik bilatzen. Horren arrazoina, noski, gorago esan dugunean aurki daiteke: normalki eta egunoroko bizitzan inizatibarako biderik eta aukerarik ez baldin badu, nekez asmatuko du kolpez eta bapatean inizatibaz iharduten. Berriro esanik, giro tradizional batetik barri-berri batetara ezin igarotzen ahal da kilpetik.

Garbi ikusi ahal izan du pendeak, zer bait asmatan hartzerakoan, errealistago jokatu beharra dela. Eta horixe da punturik baikorrena aurtengo U.E.U.ari buruz.

Halatan, hurguneak hurgune, aurtengo U.E.U.aren arras baikorra izan da. Ezin epaitzen ahal da ikastaro hori egun bat edo beste bakarrik kontutan harturik; guztia batera hartu behar da. Ezin epaitzen ahal da

ere hurbileko momentuko emankortasunari bakarrik begiratu. Guztiz zabal hartu behar da: alderdi horretatik harturik, guzti en gain, errealismo beharra erakutsi digulako juzgatzen dugu arras baikor.

Hildo honetatik, eskabide hauxe egin nahi nieke datorren urteko U.E.U.aren antolatzatzaileei: herriari programa aurkezterakoan, errealitateari dagokiona eskain diezaiotela. Esaterako, pedagogiako arduradunak ezere ere preparatu ez badu, ez dezatela aurkeztu programan eraturik balego bezala.

U.E.U.aren xedeak ez luke izan behar jende asko biltzea, bere esperientiaz eta ekintzaz bide bat urratuz joatea baizik. Urratuaren urratuz bildubehar luke jendeak U.E.U.aren inguruan. Bestela jokatzea artifizialkeria litzateke, eta denbora galeraztea. Jendeak, horrela, ez luke galduko udan beste mila ikastaro eta ekintzatarako aukerarik, eta U.E.U.aren berak arinago eta dinamikoago jokatzen ahal luke.

METAL-ITTURRI



# MUTRIKUKO ZAARREN OMENEZ

## Aurrezki Kutxa Probintzialen laguntzaz, "ZINUA" elkarteak eratuta

Ederra, aundia, ikusgarria egiaz, Andre Mari Jasokundearen egunez Mutriku ospatu zen zaarren omenezko jaialdia. Egun au, beste jai guzien artean maitakorrena agertzen zaigula, esan dezakegu. Aundia benetan, «ZINUA» arrantzaleen elkarte jator onek, Aurrezki Kutxa Probintzial, «Itxasmendi» eta «Mandazketa» elkartearen laguntzarekin, urte-oroz erriko zaarrei eskeintzen dioten maitasun agurra eta omena Badute, bai, brontze-antzeo arrantzale bulartsu auek, alako sentimendu edo doai berezi bat guzien biotzetara iristen dena. Eta egia esan, guzia, sinismenez eta maitasunez, gogoz eta biotzez egiten dutelako. Txalogarria, elkarte onen jokabide intzo eta zuzena. Beroiei esker, MUTRIKUKO ZAARREN EGUNA, erriko zaar eta erritar guzien artean, bein-betiko lotua gel-ditu da.

**Erritar denak, zear eta gazte, mariñel ta leortarra, "ZINUA"rekin elkarturik ango maitasun su-garra. Etzan iñungo eztabaidarik z denak asmo bat bakarra, Oitura ona zabaldu eta goratu guraso zarra.**

Abustuak 15. Andre Mari eguna. Zerua goibel samar. Guzia ixil. Goiztar txori abeslarien kantu eta itsasertzeo itsasoaren marmarketa besterik ez ziren nabaitzen. Eguskia ixil-mixilka lano artean jostari, bere ametslekutik agertu nairik. Eguna luzatzeaz batera, eguzkiak bere nagieria astindu ondoren, bere izpi distiratsua zabalduaz, argitu eta berotu zituen inguruetakoz bazter guziak, erriko zaar eta gaizoen gozagarri. Birtartean erriko txistularien goiz-eres-ti samurrek ernarazi eta alaitu zituzten auzotar guzien biotzak, alakoxe jai giro beroa sortuaz, eta erriko zaarren gorazarre egunean geundela iragarriaz.

Goizeko bederatzia: Irurogeita amar urtetik gorako neska-mutil zaar, guraso ta aiton-amonak, Udal-etxe arkupean batu ziren; auxe baitzen zaar guzien biltoki. Ementxe beren jaialdiari eman zioten asiera. Ementxe leenbuziko biotz-agurrak, ongi-eterri, eup!, kaixo! eta bosteko luzatzeak. Ainbeste urtetako oroimen gozoak gogoratuaz. Gazte denborako egite guziak berrizatuaz, eta beste zenbait txikitako ateraldi edo eskal jolas garbiak gogora ekarri arazi. Ango zaarren po a eta alaitasuna, ikustekoa zen! Une pozgarria uraxe. "Itxasmendiko" gazte alaiak, zaar guztiei krabelin gorri bana paparrean ezarri ondoren, guziak biotz-ukiturik, malko-jarioz, txistularien doñuaz batera elizara ziren.

Erriko eliza nagusi eder eta apainduan, aundi bezain bikaina izan arren, ez zen utsunerik ageri. Eliza osoa, zaar eta gazte, senditar eta adiskideez, baserritar eta kaletarrez beterik arkitzen zen, anaitasunezko giro bero batean guziak sendi bat osatzen zutelarik. Omenaldia erriko zarrentzat izanik, elizako aurren esertokiak ereurek osatu zituzten.

Meza Nagusi bikaina, goren-gorenetakoa; eliz-koroak eta erriak, guziak doñu berean ERRI MEZA abes-turik; mutrikuarrak kanturako oi duten zaletasun eta gatzarekin abestu ere. Zorionekoa kantuz bizi den erria! Bertan egin ziren elizkizun eskeintza, abesti, Orbegozo jaunaren itzaldi bikaina, eta meza bitarteko Azpillagaren bertsoak, guztiz aipagarriak izan zirela, ezin uka.

Jai giro ederra. Berebiziko alaitasuna kaleetan zear. Txistu eta dambollin soñua non nai. Zaar guztiak jai usaiez bizkorturik, ijiji eta ajaja lagunarte beroan baturik. Meza ondoren, amaiketako egiteko unerik egokiena izanik, guzieg ZINUA eta ITXASMENDI bazkunetara jo zuten, an zerbait bizigarri artu ondo-

ren, beren alde antolaturik zegoen jaialdia ikus zezaten.

Erriko pelota lekua zearo bete zen jendez. Ango alaitasuna, siñes ezinezkoa zen. Jaialdi ikusgarria benetan. Txistulari, dantzari, bertsolari, arrijasotzaille eta abar.

Jaialdiaren aurkezle Antonio Arkotxa "Atxukale" izanik, Azpillaga eta Okelar bertsolari ospatsuak ekin zioten leenbuzi. Bertso egoki eta ondo biribilduak bota ere, guraso zaarri zor zanei begirune eta maitasuna goratuaz.

Bereala, aintziñako oitura-arauz Mutriku eta Ermuako txistulari bikaiñen soñuz, Ermuatar Leandro Gorritxategi, 69 urteko aitonak, aurreku eta zortziko ezin obeto dantzatu zuen. Aren bizitasun eta anka puntaren eragiñak, arrigarriak ziren benetan. Ura zen dantza egitea! Ikasbide ederra gazte askorentzako.

Ondoren, erriko Aurrezki Kutxa Probintzialeko ordezkari Joseba Lete eta ZINUA elkarteko lendakari Yon Elordiren eskutik, berebiziko erregaloak jaso zituzten erriko zaarren



Begoña Abeitua. (Iñigo argazkia)

biek, Martin Basurko eta M.<sup>a</sup> Petra Garmendiak, etengabe txalo zaparradaren artean.

Gero arrijasotzailleak. Ikusgarria izan zen arrijasotzaille indartsu auek egin zuten saioa. Zazpi indartsu zirenarriari eldu ziotenak. Bat baiño bestea indartsuago eta kementsuagoa. Luis Atxega, Usategieta anaiak, Iraola, Ostolaza, Arrillaga eta Atxega gaztea. Bazen antxe indarra! Ango sasoi eta bizitasuna! Saio bitartean, Luis Atxegak, jaialdi onen laguntzailerik aundienetakoa izanik, ZINUA elkartearen izenean sari berezi bat jaso zuen, ikusleen aldetik txalo bero ugari jasoaz. Jaialdi eder ura ikusi ondoren, guziak pozik atera ziren pelota lekutik.

Bazkaria, Kooperatibako etxe-pean izandu zen, eta egunari zegokion bezela, umore ederrean egin ere. Eunda amasei zaar ziren maai inguruan bil-

du zirenak. Oietzaz gainera, bertan parte artu zuten laguntzaille, bertsolari, txistulari, arrijasotzaille eta abar. Ainbeste urte buruko neke eta garratzasunak aaztu-erazteko une pozgarria, alegia. Ongi jan ondoren, asi ziren "Atxukale"ren ateraldi, Tomax "Xoxuen" pregoi, txistularien jardunketa, bertsolarien itz-neurtu, Rikardo eta Martin Arreitunandia "Tolon"en zortziko eta abes-taldearen abesti ederrak. Bakoitzak beren abildadeak egoki azaldu zituen; baida batez ere, Begoña Abeitua, abots-gorengo abeslari ospatsuak, urretxindorrek bezin garbi eta abots ederrez abestu zituen "Ni naiz emakume bat" "Amak ezkondu ninduen" eta "Maitasuna". Iru abesti auek entzungarri eta txalogarri izan ziren. Pozik entzuten genituen eta pozik txalotu ere. Zorionañ Begoña!

Azpillaga, Urretabizkaia eta Modesto "Okelar" ere, bertso saio ederrik egiñik ziren. Ona emen bertso oietako batzuk.

### Azpi:

Zaar jende ontan pentsatzen sarri egunetan naiz egona, asi baitzaigu omenaldia beren aldera emona. "Olatz" gaitikan etorri eta emen badegu amona, larogeita amar urte pasiak "ITURRITZA"ko Ramona.

### Okelar:

Zeure denboran ez ziñ izango zu egin gabe ba lanik, alare bizi ainbat urtean beti sufritzen jardunik. Aizu Ramona, galderaxo bat, orain egingo dizut nik, sekula pasa ote dezu zuk gaur bezelako egunik.

### Urret:

amaika goraberako, Mundu txar onek sortutzen ditu gauza auxere esan bear det gaur guztion onerako. Maitasunian goral gaitezen ta sasoi deu lanerako, zaarren oroitza izan dezagun zaartutzen geranerako.

### Azpi:

Zar jende onek sentitzen dute pena ikaragarria, berengandikan diferente da gaurko gaztedi berria. Euskera eta euskal jolasa euskaldunen jatorria, gazte aldrabesak ez dira izango bizi da Euskalerria.

### Okelar:

Zaarrak gutxitan egoten dira onelako alkartian, eta eskertu naiditut denak guztizko borondatian. Nere aita t aamatxo ere

ementxe dira tartian, gaurko egun au etzait aztuko biz anitzen bitartian.

### Urret:

Nere buruan sartua dago Modestok esan diguna, eta guztioi gustatu zaigu onek egin dun jarduna. Gurasoentzat itz egin baitu oso izkuntza leuna, aita ta emakin sortuezen zaito aztu ez leiken laguna.

### Okelar:

Emen jendeak zarrarentzako bear du borondatia, alaitasuna komeni zaito egoten baita tristia. Lagun urkoa biotzetikan izan dezagun maitia, edo bestela, ni kristaua naiz, alperrik da esatia.

### Azpi:

Mutrikuarrak gaur bildu dira talde batean elkarren, au ez da ondo aitortuzerik garbiro ikusi arren. Gazte jendea kanta dezagun guk aldegunik jatorren, pentsatu beste gauzarik ez da guretzako zer datorren.

Orrelaxe bukatu zen erriko zaarrei eskeiñitako jaialdi bikaina. Joakin Txiki, "Idrole" eta ermuatar Luis Albizuk beren txistu eta denboliñarekin nai zuten guzia egin ondoren, guziak anaitasun ederrean, guziok pozez AGUR JAUNAK, abestuz batera etxeratu

Aznik, NU ko lendakari, eta elkarte osaren onen, eskerrik berroenak Lu... egari, "Itxasmendi" eta "Mandazketa"ri. Orobat eleiz-gizon eta bertan ainbeste lan egin zuten gizonetako eta emakume guziei. ESKERRIK ASKO.

### ANDONEGITAR ZIRIAKO

Neska euskalduna behar da haur bat zaintzeko.

### ALGORTAN

Deitu Telefono honetara

Telf. 69 89 52

## ATE OPARIAK

### GAI TA IRUDI POLITENAK

Victor Pradera, 2 (Esquina Zubieta)

DONOSTI

## BERTSO BERRIAK

«Txara Txikiak» jarriak

I

Pelota joko maite maitea ainbesteren jostailua, zutaz itzegin nai nuke eta, badet naiko istillua. Juzkatzen zaitut bi eratako arma edo iskillua. Nola nai ere etzaitut jotzen birtutean ispillua.

II

Baserri baten jai nintzan da, zenbaitek ainbat aukera ez izanarren, gure pausoak beti ziran frontoiera. Txikitandian sentitu nuen zureganako jokera. Zu zeralako medio milla espartin autsiak gera.

III

Kaxkarra nintzan gorputzez eta, artu nuan milla neke. Makiña batek eman zizkidan amaika kontseju merke. Pelota ainbat maitatzen nuan! geiegi esango nuke. Etxean ere palizak sarri laguntza on baten truke.

IV

Ala etzegon jarraituzerik, beti beldurrez etxera. Ni ez bai nintzan iñofiz erortzen gurasoen ametsera. Eskolarako bidean orde z beti nere jolasera. Ea zuzentzen nintzan bialdu ninduten Comillas-era.

V

«Txara Txikiak» bere burua ikusten du konbentuan. Berealaxe moldatu nintzan, eta nengon kontentuan. Ango bizitza metodikuak mutildu egin ninduan. Orra pelotak gizatasunaz zer ikusi zelan duan?

VI

Lenen partidu profesionala Eibarren zan nere ustez. Amets aundi bat egi biurtu, akatsez edo birtutez. Etorkizuna menderatu nai, ta jabetu buruastez. Ez naiz alperrik ibili izan frontoietan ogei urtez.

VII

Ogei urtean pelota joka igaro gazte denbora. Oraindik ere ainbat alditan etorritzen da gogora. Figura danak izan nituen aurkara eta albora. Pelotariok bean gelditu, enpresarioak gora.

VIII

Betiko ez da pelotaria, alako batez akabo. Geroztik onuntz pasa izan det bizitzan amaika trago. Ez seguru bat, laguntzik gabe, ortatik ezer ez dago. Ara pelota, pelotaria ez al da zure esklabo?

IX

Orra pelota, ematen dizut larros eder baten antza. Eta nigandik ezin aldendu sentitzen dedan zalantza. Azpikeritan dabillenen negozio esperantza. Pelotariak sarizat, berriz, larrosa orren arantza.

X

Perrogeitaka urtekin utzi zindutan nik azkenean. Ofiziorik gabe bizitza berri bat asi lanean. Gure kontura makifiatxo bat, or, aberastasunean. Injustizia pranko badago pelotaren izenean.

# LIBURUGINTZA "GIZONA ABERE HUTSA DA"

Gauza asko dugu buruan eta bihurtzean. Baina oraingoan ez da egia bilakatuko esatera zaharra: "Zer gogoan, hura ahoan". Ezin ahora dugu barruan duguna. Ahal duenean kantatuko du bihotz barruko sentipena.

Liburu askoren aipamena eta kritika dator ale honetan. Nahigabe, eta ustekabean, baina euskal liburuei eskaini diegu ale hau. Argitaldaria bakoitza bere lanari lotua dihardu, JAKIN liburu sakonci emana da. GEROK gazte-koak ditu gogoan. AUSPOA aho-hizkuntza eta bertsoalaritza lantzeari jarraitzen zaio. Irakaskuntzari begira lanean ari direnak ere ez daude geldirik.

Euskal liburugintzan gaur hainbat lan ez da sekula egin. Urtean behin liburu bat argitaratzen zen garai haiek joan ziren. Ezin irakurri eta ezin erosi ahala liburu argitaratzen da gaurregun.

Ia astero egin ohi dugu liburu berriren baten aipamentxoak. Inoiz biz-pahirurena ere egin ohi dugu. Halere aipatu gabekorik ere geratuko da, noski, bazterrean.

Urrats herri asko egin da. Bide herri asko ebaki da. Hauspean zabartuko denik egingo zen, noski. Sakonik, interesgarririk eta irakurgarririk ere egin da, ordea. Ondorengo belaunaldiak dute, ondoen, hauen balioa. Bertaegi eta urrutiegi dena ez da ondo ikusten. Eta gu hurbilegi gara geuron lanak ondo ikusteko, neurtzeko eta epaitzeko.

Bestalde, elkarren ezagunegiak gara besteren lana zuzen eta behar bezala neurtzeko. Liburuaren azterzaileak badaki ongi zeinen minberak garen. Ez liburuaren argitaldaria eta ez liburuaren egilea minberatu nahi lituzke. Liburuaren iritzi-emalez jendeak dezakeenak ikaratzen du.

Halere bide zail eta neketsu honi heldu dion jenderik bada. Ale honetan bertan hiru liburu aztertzen eta apaitzen dira. Ez da beste biderik aurrera jo nahi baldin bada. Liburuaren hutsuneak eta argiuneak ikus erazi behar zaizkio egileari eta irakurle arruntari.


Iritzi-emalez zuzenaren bidez zuzenduko ditu okerrak eta urrats berriak emango idazleak. Irakurleari, berriz, dena itsu-itsuan har ez dezan argi egin eta liburuak dakarren mamia aurkitzen eta duen ederraz goratzen lagunduko dio.

Liburugintza, herrigintza, gizartegintza eta abar aztertu eta epaitu behar ditugu sakon eta zuzen. Azter-giroan bizi behar dugu etengabe. Baina ez maxiaketa eta atsokeria antzu eta hutsean gera gaitzen. Gure lanak azter-tzeak, neurtzeak eta epaitzeak lanera bortxatu behar gaitu; lan sakonagoa, burutsuagoa, oparoagoa eta emakorra egitera eragin behar digu.

Etsi eraziko gaituen atsokeriarik ez dugu behar. Utikan kritikakeria. Lanerako adorea eta poza emango dizkigun azterketa sakon eta suzua behar ditugu. Iritzi emate zuzen hau onartzen ez duen liburugileak edo ekintzaileak ez du gauza onik egingo.

Olerkia, bertsoalaritza, nobela, artea, herrigintza eta abar, denak dira aztergai eta aztertu beharrekoak, egiten dena eta egiten ez dena. Eta ezeri gogor eraso behar baldin badiogu egiten ez dugunari eraso behar diogu.

Hiru liburu aztertzen dira ale honetan. Azterlanerako bide gerta bitez. Kritika bideari ekin behar diogu, beldurrik gabe.



Liburuaren izenburua desegokiro hautatua da, ene ustez. Eta tamalgarrria da.

Ehun eta hirurogei orrialde mami-mitsu horietan barrena oso funski gaurko mitologi politikoa eraketa egiten baita; eta ez, izenpu-ruak adieraz lezakeenaz bestaldera, izpiritukerian edo sasi-goitasunen azterketa zorrotz bat soilki.

Gaur politikaren mailan, bai Euskal Herrian bai Europa guztian, erabakizun dagoen arazo ezin sakonagoaren azalpen garbi bat eskaintzen digu egileak. Galderaren kokoa hitz gutxitara bildu nahi izanez gero, hau esan liteke agian: «XIX. mendeak, eta marxismoak oso bereziki, agindu ziguten iraultza guztizko hori egite-rik ba ahal dago, zinez eta funtsez obratzerik?»

Jakina: bai egilea eta bai argita-razzailea bera ongi jabetu dira gal-derak berak gaur gure herrian dakarren herronka edo desafio zamaz. Horixe dela eta, nik uste, lehenengo aldiz gaitzizen baten atzean izku-tatu nahi izan du egileak bere burua, ultra-iraultzaileek traidoretzat salatuko duten segurantzian.

Eta argitaratzaileak ere, bide bere-tik, eskuak garbitu nahi izan ditu hitzaurre gisako «Argitaldarien oharra» delakoan; «debekaturik gel-ditzen zaizkigunak —izuti azaltzen du— utopia merke eta gaiztoak dira; ez esperantzak». (IX. orr.)

Hots, «Iraultza»-ri buruzko mitol-ogiari erasotzeko herabetasun horie-txeak dira, ene ustez, gure egoera-ren ezagugarririk argitsuena: hon-nbeste urte honetan isilik egon beharrak, utopiarik nabarmenak berak sinestera eraman gaitu; eta gaur, lilura alferrak sala beldurrez, Zuhurtziaren abotsez mintzatzeko-tan ere, gaitzizenez, itsuskeria de-senkusatuz, eta eskafandra gotor bat-barnetik egin behar bide da. Lazkano lekuko. Egia aitortzearen izua nagusitzen ari da gutzaz; eta, horre-tara, zabalik du bidea gezurrak.

Lazkano Mendizabalen liburuak, horretara, zeharo kontrakarrean da-torrelako, berehalakoan bederen arrakesta txikia izanen du; eta, hau ere segur, ezkerkoien herra segur-taturik dago egilearen aurka.

Horretxeak berak erakusten du, ordea, liburuaren beharra.

Zorigaitzez, eta izkiriaren dugu-nok dakigu hau ongienik, gutxi irakurriko du Lazkanoren liburuak; eta, gure arteko «modak» direla bide, gutxiagok onartuko.

Liburuaren mamia, ordea, guztiz egokia iruditzen zait, giro eta ikas sail guztietan zabalitzeko eta eza-gutarazteko modukoa; eta gure poli-tika bidean zentzua arrabiltzekotan, txit beharrezkoa.

Iraultzaren ideia —diosku Lazka-nok— eta areago iraultzaren espe-rantza, modernutasunaren haur dira; eta, hildo beretik, modernutasun hori gizonari buruzko baikortasuna da funtsean: gizona ona da, gizona prestua da, gizonak bere adimena-ren arabera egiten ditu hautuak, ez-tabaidaren bitartez sortzen da egia,

gizona heziketak hondatzen du, gi-zona legeek gaitzaten dute, eta abar. Lazkanok ongi azaltzen duenez (nahiz batzutan erretorika luzeegiz, egia esateko, eta III. kapituluaren be-reziki), bai Marxek, bai Freudek, bai estrukturalismoak, bai biologiak, ge-ro eta murriztago utzi dute giza-as-katasunaren hesparrua. Gizona mila baldintzaile eta mugatzailearen jopu da.

Hots, mugatzaile horiek Marxi gizarte-mailako iruditu bazitzaizkion ere, gerozko zientzi-aurkikundeek besterik erakatsi dute: alegia, mu-gatzaile edo baldintzaile horiek giza-barnekoak ere badirela.

Gizonaren baldinketa —dio Lazk-anok— soziala, edo gizarte-maila-koa, baldin bada, gizarte iraultza ba-tek iraultza osoa ekar lezake, eta Gizon Berria eman. Hauxe zen Mar-xen esperantza.

Baina giza-mugaketa hori *biografi-koa* ere baldin bada (Freud); edo eta *biologikoa* (biologia guztia le-kuko); eta mota guztietako egituren barne-logikak honetaraten edo har-taritzen baldin bagaitu, orduan be-tirako iraultza oso eta borobil fa-matu hori, Gizon Berria ekarriko zuena, eta abar, ezinezkoa da. Mar-xisten esperantza, beraz, utopikoa da; funtsatu duen antropologia egia ez delako.

Hots —segitzen du Lazkanok— Biologia eta Ethologia berriak (Lo-rentz Nobel-Saria askotan du aipa-tzen) *barne-baldintzaile* horien ga-rrantziak mintzo dira; bidenabar gi-zarte-iraultzaren zabalatasuna ge-ro eta areago murriztuz.

Honi buruz fenomenorik funtsez-koenak aipatzen ditu egileak IV. ka-pituluan; eta, zinez, tamalgarrria izan da kapitulu honen mamia aurretik eta denen gainetik ez jartzea. Ezen filosofien aurkezpena eta kritika egitea (III. kapituluaren batez ere) on-gi baita agian, nahiz honetan are-a-go jarraitzen bazaio egilea bere fi-losofi-joerari liburuaren beharrei baino; baina, bai liburuaren izenpu-ruari lotzeko, bai iraultza sozialaren mugak tinko ezartzeko, biologiaren eta ehologiaren ekarriak azaldu be-harra baitzegoen bereziki, Hobbes-en edo Rousseau-ren ideiak, esate baterako, alde batera utzita.

Azken ohar bat egin lekiok liburuari, ene ustez.

Lazkanoren hitz bereziaz baliatuz, «lehenagoko helburuak aldarrikatuz segitzen dugu... Denboren diferentzia ahazterik ez dadukagu».

Hots, 57-58 orrialdeetan, hau irakurtzen dugu: «marxismoa defentsi-ban bezala dago natur jakintzen au-rrean: haiek aprobetxatu eta bere baitaratzen ausartu gabe. Oraindik ere, zain marxista edo neo-marxista enplegatzen da biologiaren, neurofi-siologiaren, ethologiaren aurrerape-nekin, bere teoria edo asmoetarako ondoriak ateratzeko, eta sozialismo-aren teoria aberasteko edo korre-jitzeko?». «Eta hau erasten: «Eta hain garrantzizkoa litzatetke guzti hori».

Zergatik behar da marxismoa abe-rastu eta korrejituz? Zergatik ez, eman dezagun, kristau demokrazia, zibernetika edo zen-budismoa? Era-n-tzuna irakurlearen esku utziko dut. Oraindik ere, dirudienez, Lazka-nok dena azaltzen da eskontzen omen zuten marxismoaren gal-etsia agertzen du, hastapenean kritikatzan dituen maoistek eta bestek beza-laxe.

Hots, ideia hori, alegia marxis-moa «aberastetik eta korrejitetik» dena konpinduko dela, gure artean besterik pentsatzen bada ere, *ana-kronikoa* iruditzen zait. Utzi behar dena, ezer uztekoan, frutu nagusi-tzat behin eta berriz (ikus Cunhal) fazismo gorria ematen duen marxis-moa baita, hain zuzen. Marxek, hau bai, argitu dituen gizarte-arazoak Giza-Zeintzien KAPITULU bihurtuz. *Antropologia* behar da aberastu eta korrejituz.

Hitz bakar bat bukatu aitzin iz-kuntzari buruz.

Joria, ederra, aberatsa, joskeraz bikaina, zenbait aldiz Atsularren pa-rekoa, Lazkanoren euskara. Hitzegi kontuan, ordea, zabartua batzutan, desberdina tarteka, beharrik gabe mordoiloegi. Zergatik erdakeria hori-rik? Egilearen beraren hiztegi ba-ruan bailegoke konponketa.

Inportantea hitz batez Lazkanoren liburuak. Oso, ene ustez.

LARRESORO

## BERRI-EMAILEON ARTEKO ARAZO BAT

GURE LANA SENDOAGOA IZAN DADIN PRESTAERA BATEN BEHARRA SUMATZEN DUGU

Denok dakizue nondik eta nola hasi gintaizkizuen hainbat herri eta hauzoetatik gure berri apalak, xis-trinegiak behar bada, Zeruko Argia-  
ra hala Z.A. bezalako beste izpa-rringietara bidaltzen ditugunok.

Euskara nola edo hala bagenekie-la eta besterik gabe, hutsunea be-tetzen ausartu gintuzuen gehienok, denok ez bada ere. Zaletasunak era-ginik, bultzaturik, dihardugu eta ez da gutti. Badu horrek bere meritu-rik. Baina, borondatea bakarrik ez da nahikoa «zerbait» gehiago behar da eta «zerbait» horren beharrea aurkitzen gara hain zuzen. Idazleen (?) plazara salto egin dugunok, jan-tzi gabeko geure buruei zer gehiago eska genezaieke? Bestalde, irakur-leak gugandik zer espero zenezake?

Ez gara inolako eskola eder hoita-ko batetik atera (egia esan, ederta-sunaren beharrik ere ez dugueta), ez eta unibertsidade batetik (ez bait dugu oraindik euskaldunok halako zoririk) herriko emparantzaren «har-robitik» baizik.

Beraz, gauzak horrela direlarik, istruizio edo ikaspidetara beharnez-ko oinarri batzuen falta handia du-gulakoan gaude. Zeren... ba ote da

kigu elkarrizketa bat nola moldatu? Idazlan baten izenburua aukera-tzeak zer-nolako garrantzia izan de-zakeen? Edo zenbait berri arrisku-gariak, ia esan gabe adieraztera nola eman?

Guk sumatu ere egiten ez ditugun mila puntu eta galdera gehiago ere izanen dira segurutik, hemen aipatu ditugunetatik aparte.

Galdera guzti horiei erantzungo dien ikasterotxo bat antolatzea litza-teke, beraz, egokiena. Baina nork antolatuko? Nola? Norentzat?

Zerbait egitekotan, honetan ez dugu inolako dudarik, Euskaltzain-diarene babesean egin beharrekoa lit-zatekeela derizkiogu. Bestalde, ba-dakigu duela urte batzuk Amatiño jauna hor ibili zela, horren antzeko ideia eta asmo baten atzetik. Ama-tiño burutapen eta proiektu ho-rien berri eman zigun garaian solda-duskan geunden, orduan ezer egite-rik ez genuela eta geroztik haren zuzenbidea galdu egin genuelarik. erantzun ere ez diogu egin. (Barka ezak).

Ikasaldia euskal aldizkari eta iz-parringietako berri-emalez guztien-tzat eratu izan beharko luke. De-nok izanen bait dugu zer-ikasi beha-rra. Izanen ahal dugu horrenbesteko suerterik? Ez dezagula, behintzat, esperantzarik gal!

ETXETXUKOAK

**zeruko ARGIA**

JABEA:  
Nafarroa, Kantauri eta Are-goiko Kaputxinoek.  
Burlada, Kale Nagusia, 50-1  
Donostia, Okendo, 22  
Telf. 41-95-88

Ondezkaria: Kaletano Ezelza Iturriza

ARPIDE SARIA:  
Barruan 400 pezeta  
Korreo batasun-tako herrietan 620 pezeta  
Atzerrietako bes-te herrietan 460 pezeta  
Alrez Aldez aurre-tik galdetu

Salmenta (ale bakoitza) 10 pezeta

Moldiztegia eta Idazkola:  
«Gráficas Navasal»  
A. Adalain, 1. IRUIREA  
D.L.: NA. 80-1963



# ZENBAT GARA

## Idahoko Euzkozaleak Boise-ko ikastola



Asmoa ez da berria. Pare bat urte bai "Idahoko Euzkozaleak" izeneko elkarteak euskal folklore eta kulturari buruzko programa bat moldatzea erabaki zuela.

Programa aurrera zedin, Jon Oñatibia bertara deitua izan zen, sei aste epe batez nolabaiteko lehen pausoak emateaz gainera, ondoko plangintza orokor bat ere molda ahal zezan.

Sasoi haretan, kanta, txistu eta dantza taldeak bizkortu ziren, bai eta euskarazko ikasaldiak sortu ere. Baina, behar bada. Oñatibiaren lanik iraunkorrena bi andereñoen prestatzea izan zen, gero haurren artean lan egin zezaten.

Izan ere, lehen ondorio bezala, "Idahoko Euzkozaleak" euskarazko ikastaro bat antolatu dute aurten, Boiseko "Basque Center" delakoan.

Harako ikastaroa apiril-maiatzetan eratu zen. Guraso euskaldunak (biak nahiz ama edo aita) dituzten hamazortzi haurrez hartu dute parte. Nagusienak hamalau urte zituen eta gazteenak, berriz, lau baino ez. Hamazortziarikhiruk zekiten euskaraz.

Andereñoak, noski, oñatibiak prestatuko biak izan dira. Bata Juli Egurrola, Idahon (Nampa) bertan jaioa eta euskaldun berria bera. Bestea, berriz, M. Carmen Egurrola, gernikarra eta Bittor kantariaren arreba.

Jon Oñatibiaren metodoaz baliatuz, ikasleek mahai eta senitarteko euskara arrunta ikasi bide dute dagoeneko. Adinari dagozkion kantak ere irakatsi zaizkie, eta nagusienak idazlanetan hasiak dira.

Ameriketako lurralde haietan etorkizuna zertan dagoen ezin oraindik esan. USA-ko Idahon, Europako Euskal Herrian bezalaxe, ikastolak hutsaren hurrengo dirateke baldin etxean girorik ez bada.

Edozein modutan, "Euzkozaleak" elkarte bere aldetik behintzat zerbait egin nahirik ari da, Boiseko ikastola berria aurrera atera dadin.

## Irakurlea mintzo denda izendegiaz edo



Xabier Kintanak burutua eta Euskaltzaindiaren ardurapean taxutua, duela bi urte argitara eman zen **Merka-talgo Izendegia** delakoa. Geroztik, ez bide du izendegi honek —heri mailan eta egiazko praktikan behintzat— harrrera oneririk izan.

Izendegiaren arbera zein ez, benetan guti dira dendetako izenburuak euskaraz jartzen dituztenak, eta izenburu nagusietan ezezik, eguneroko adierazpen arruntetan ere —itxita, irekia, butza etab.— ez da batere eraginik sumatzen.

Gauza jakina da dendaririk gehienek ez dutela batere eragozpenik hainbat euskal kultur antolamenduek eratu ohi dituen ekintzen txartelak jartzeko. Alderantziz, gauza frogatua da txartel batzuk euskaraz eta beste batzuk erdaraz argitara eman ohi diren kasuetan (Aspace, Eliza, Odol-emaille Elkarteak...), dendariek nahiago izaten dutela, "bada ezpada" edo, euskarazkoa jarri.

Hala ere, Euskal Herriko beste kontraesan bat gehiago bezala, dendariek berek egindako txartela jarri behar dutenean, erdaraz jarri ohi dute, "bada ezpada" ere.

Arazo honetaz datorkigu Bergarako irakurle bat. Hona zer dioskun:

**Kaixo Amatiño:**

Gutun honen bidez berri pozgarri bat bidaltzen dizut. Nerezat pozgarria izan da behintzat, eta ZERUKO AR-GIAREN irakurleei ere uste dut atsegin izango zaiela irakur-tzea; gainera, eredu ederra hartu dezakegulako, alegia euskal ardoan; esa ba behingoz murgiltzen garen bildueta lotsak alde batera utzita.



Boiseko ikastolako zenbait ikasle Totorika andereñoaren inguruan.

Berri hau ikusteko zoria Bergaran izan dut, hau da, denda batetako eskaparatean, euskaraz soil soilik, honela dio:

"Oharra: Ekaina, Uztaila eta Abuztua illetan, larunbat arratsaldetan itxi egingo da denda au; eta aren ordeaz astelaren goizetan irikiko da".

Hara hemen, nere pozaren zergatia, ez ahal da ba benetan poztekoa? Hona ikasi ederra, eta ea ba hemendik aurrera saiatzaren garen guztiok bergarar dendari honen eran jokatzen.

Nere aldetik eskerrak ematen dizkiet hartu dudun poza-rengatik, Gabilondo-tar ahizpei, bejondeizuela!

Horrela jarrai. T. T.

Begarar honen gutunaren osagarri bezala beste bi anekdotatxo kontatu dezakegu.

Bata Deban, Denda batetan nahi izan dute euskarazko txartela jarri. Dendariak, euskalduna bera, nahiago ez, orde: "Hori jartzen badet alemana dal pentsatuko dute madritarrek".

Bestea Eibarren. Hau da, bertako dendan artean "Itxita" txarteltxoa jartzen duen bakarra (edo bakarrenetakoa), "El Corte Ingles" delakoaren bulegoa dela.

## Berriak

Irailaren 6an bertsolari saioa eratu da Osintxun gaueko 10 etan. Azpillaga, Egileor, Lazkao Txiki, Lopetegui, Lizaso eta Gorrotxategui arituko dira.

Gai eta puntu jartzaile: Jose Mari Iriondo.

Biharamunean, Osintxun bertan, umeen euskal jaia eratu da. Gaizetik kalejira, meza eta dantzarien ekiñaldia.

Arratsaldetik, berriz, Kixki, Mixki eta Kaskamelon pailasoen saioa, eta illuntzean sokamuturra.

Iruñeko D.A.G. arte galeriak hogeitamar euskal artistaren erakusteta bat moldatu berri du, eta irailaren azken arte zabalik iraungo.

Jurgi Oteiza ere parte hartzeko zen, baina azken batez ezetz esan du. Iruñeko hortan ez ezik, ez omen du gehiago beste inongo erakusketan parte hartuko.

Euskaltzaindiak eskari egin dio Nafar Diputazioari, "Príncipe de Viana" antolamenduaren bitartez Iruñean ere ordezkartza jarri ahal izateko.

Bilboko bulego nagusiez gainera, Euskaltzaindiak bere ordezkartzak ditu Gasteiz, Donostia eta Baionan.

Irailaren 6, 7 eta 8an euskal liburu eta disko azokak jarraituko du Donostian.

Euskal jaien programaren barruan burutua da, eta Alderdi Eder jardinetan muntatuko.

Irailare 7an, Leitzen, Dorletako Andra Mari Espainiako txirindularien zaindaria izendatua izango da.

## Txinpartak

Ia bi hilabetetako lehorte handiaren ondotik, euria azkenik Donostia aldean, abuztuaren azkenetan.

Ea ba, Lasarteko zaldiek ezezik, gainerakoek ere muturra egunerok errefreskatzen ahal duten!

Ergeneako hauzia harmatu duen Vastameroli kondeak Olandixoko (Arrasate) baserriarrarierosia dio titulua. Vastameroli zenak Olandixoko semeari utzi zion titulua, eta donostiarrak berriz mondrautarrari erosi, Juan C. Gerraren bitartez.

Erljio bokazioen eza eta krisia dagoela eta, han-hemenka hainbat zifra eta estadistika irakurri ahal izaten dugu. Krisia krisi, eta giroa giro, beste zenbait gremioren artean bokaziorik gehitzen den ez dugu jakiten ahal.

Eskola zaharreko apaiz bat eta apaizgoa utzirik ezkontzeko den gazte bat elkarrizketan. Zaharra beldur da gaztearen beste adiskide batek ere apaiz izateari utziko ote dion:

—Eta, zure adiskide horrek zer? Horrek ere hatzez idazten du...

—Baina, hatxeak ba ote du pitilinarekin zer ikusirik.

Mutiko "kusiosua" gero gure Zatarain'darr Anbrosi.

Bereak ezik, Jainko gabekoan esanak ez ditu ba hatzez idazten!

Euskararen Batasuna hutsaren hurrengo izan daiteke agian, baserri edota senitarteko giroan. Behar beharrezko, orde, testogintzan, eguneroko prentsan edota telebistan.

Telebistan euskaraz eman nahi den programatxo bat zer eratan moldatuko den ez jakin. Arduradun nor izendatzen duten arbera izango da segurutik.

Dena den, oraintsu euskal berri emaile batek idatzi duenez: "Euskalki guztiak erabilli bear dirala uste degu". Errenkorapilo!

Begarako dominikoetan meza guztiak erdaraz dira.

Erdaraz, dominikoak eta Ikastola etxe berean badaude ere, eta Ikastolako zuzendaria dominikoa izan arren.

## DEBA :



EUSKAL KOSTA NUKLEARRA



Patxi Aldabaldetrekuri  
Jose Ramon Rekalde  
Karmelo Urdangarin

## Deba: Euskal Kosta Nuklearra



Donostiako KRISELUK, Deba: Euskal Kosta Nuklearra deritzan informea argitara eman berri du. Patxi Aldabaldetrekuri, Jose Ramon Rekalde eta Karmelo Urdangarin hirukoteak burutua da, Patri Urkizuren euskarazko moldaketaz.

Liburu honen asmoa Debako Nuklear Zentralaren proiektora aztertzea da, horrelakorik aurrera aterako balitz zer gerta zitekeen azalduz.

Istudioa dibulgazio mailan taxutua da, eta ez dagokio hasera haseratik erabat eta zuzenki Debako proiektuari. Aldez aurretik, egileek mundu honetako indar iturri eta premien berri ematen dute, petrolioaren krisia eta beronen ondorioak aipatuz.

Ondotik nuklear indarra zer den azaltzen dute, haren hainbat motatako arriskuak ezagutaraziz.

Laugarren kapituluaren Debako proiektuari atxikitzen zaie, enplazamendua, demografia eta eskualdearen desarroi- loa agertzeaz gainera, proiektuaren alde diren arrazioak kontraztertuz.

Azkenik, herriaren erantzuna nolakoa izan den ere azaltzen da, bai eta zentral nuklearraren aurkako joera giza fenomeno bezala nabarmendu ere.

Amaitzeko, hamaika puntutako "ondorioak" eta zenbait elkarrizketa erazkin zebala osatzen dute benetan interesgarri den liburu hau.

Informea, hainbat eratako mapa, baremo, taula eta zerrrendaz hornitua da. Guztiz 51 irudi dira, lehen eskuko iturrietatik bilduak.

Azken batez, Patri Urkiburen euskarazko moldaketa nahiko zakarra, latin joskerari gehiegi atxikia behar bada, errelatiboetan batipat. Dena den, ez da Patriren akats bat, promeditazio osoz egindakoa baizik.

## Amaitzeko hiru

Euskal kultur aste bi suspenditu dira oso osorik Gipuzkoan, irailaren lehen astean bata, eta bigarren astean beste. Gauzak daudenez "herri mailan" erabaki omen dute ezetza.

Betiko leloa, halakoetan, berez urria den euskal kultur-gintzak mututu behar ote duen ala ez.

Alde zein kontra, antolatzaileak beren herriko giroari jarraitu zaizkielakoan gaude.

Xabier Amuriza apaiza berririo Euskal Herrira zaigu, sei urte luze Zamoran pasatu ondoren. Ongi etorri. "Zeure etxean zaude".

# EAMON DE VALERA

## Irlandako abertzaletasunaren aita hil da

Eamon de Valera, Irlandako errepublikaren lehendakari oihila hil da Dublinen abuztuaren 29an. Irlandako aberriaren eta iraultzaren aitzat ezagutzen zena.

92 urtetan hil da eta bere bizitza osoa Irlandako abertzaletasunari eskainia izan da. Valera aipatu gabe ezin daiteke Irlandako abertzaletasunaz ezer idatzi.

Erdia Ipar Amerikanoa bazen ere jatorriz, izatez eta gogoz erabat irlandesa zen. Irlandako hizkuntza ikastea izan zen lehenbizi egin zuen gauza. Eta irlandera eta matematika irakatsiz bizi zen lehen urteetan.

Irlanda bere buruaren jabe izan zitekeen erresuma eta aberria izan zitekeela 1911garrenean burura ziztaion lehen aldikoz. 1913garrenean «gudari irlandesen» taldea sortu zuen. 1916 garrenean Dublingo iraultzaren gidari izan zen.

Baina ingelesten atzaparretan erori zen. *Bizia zor du* erabaki zen ingelesek egin zioten hauzian. Halere bizitza osoko itzalaren truk bizia barkatu egin zioten. Ingelesen atzaparretan erortzea ez zen berriketa. Bat baino gehiago urkatu zuten garai hartan.

Amnistia orokor eta zabal bat izan zen hurrengo urtean. Sekulako on-

gi-etorria egin zitzaion Dublinen. Bizia galtzeko arrisku larrian izanak ez zuen ikaratu. Berritua Irlandan askatzeari ekin zion.

«Sinn Fein» (geu bakarrik) politiko alderdia sortu zuen berehalaxe. Clare eskualdetik diputadu atera zen garai hartako hauteskundeetan. Ezaguna eta famatua egin zen Irlanda osoan. «Ez dugu erdizkako askatasunik behar, askatasun osoa baizik», hotsegiten zuen.

1918 garrenean «Sinn Fein» lehendakari aukeratu zuten. Urte honeetan bertan espetxeratua izan zen berritua. Baina urtea baino lehen ihesegin zuen Lincoln gartzelatik. Ipar Ameriketara jo zuen urte horretako ekainean. Irlandaren askatasunaren alde ez zen geratu eta ez zen isildu han ere.

Ingalaterrak Irlandaren askatasuna aitortu bezain agudo berritua bere aberriaren zen. Halere, 1921 garrenean, espetxeratua izan zen. Baina oso denbora gutxirako.

Dail, Irlandako parlamentuko, lehendakari izateari utzi egin zion 1921 garrenean, eta berritua borrokarari ekin zion.

Ingalatarraren mende geratu zen Ipar Irlandako sei eskualdeetan sartzerik ez zuen. Debekatu egin zio-

ten. Agertu bazen agertu zen alderdi haietan, Belfast-eko gartzelan giltzaperatu zuten hilabeterako.

1933 garrenean Gobernuako lehendakari aukeratu zuten.

Gizon haundi bat galdu du Irlandak. Hego Irlandaren askatasuna lortu zuen gizona galdu du. Ulster, Ipar Irlanda, Hego Irlandari lotuko dioten gizonak sortuko diren itxaropenez beterik hil da, noski.

Zintzo fama izan nahi baldin bada irabazi egin behar da. Irabazten ez den bitartean gaiztoa izan ohi da bat.

Valera ere gaiztoa izan zen galtzen ari zen bitartean. Gizartearentzat arriskugarri zelako behin eta berriz giltzaperatua izan zen. Hiltzea erabaki zuen Ingalaterrako hauzitegiak. Izan ere iraultzaile nahastaila bat zen, gizarteko bakeo galzorian ipintzen zuen gizon gaizto hoietako bat.

Baina irabazi egin zuen noizpait ere. Irabazle guztiak bezelaxe zintzo bilakatu zen. Hil da eta Ingalaterrako lehendakariaren doluminak jasotu ditu. ilson-ek ezin gorde izan du bere barruan, hain gizon onaren heriotzak, eman dion nahigabea.

IRASTORTZA

**Etxe bizitza bat irabazi duzun albistea pozik jasoko al zenduke?**

**ZOZKETA 4 BIZITZA**



CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA



Etxe bizi bat irabazi duzun albistea pozik jasoko al zenduke?

Pentsa zazu urrutizkiñez dei bat sartzen duzula... Eta etxe bizitza bat suertatu zaizula esaten dizutela! Sos bat kosta ez zaizun etxe bizitza. Gure etxean,

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA ETXEAN, zure diruak aurreratzeagatik bakarrik irabaz dezakezun etxe bizitza duzu.

Sartzen den 1.000 pezeta bakoitzeko zenbaki bat jasoko duzu, baita ere

leendik jarriak daukazun 5.000 pezetako bakoitzeko, beste zenbaki bat ere. Eta ain da erraza orrela etxe bizitza bat eskuratzea! Au da uste gabeko poza! Orrelako albistea, nork ez luke pozik jasoko?



# IPAR EUSKAL HERRIKO BERRIAK

## III UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA: AMAITU DA

Hirugarren aldiz eratu da Udako Euskal Unibertsitatea. Aldi bakoitzean, zailtasun bereziak eta betikoak izan dira. Halere, zailtasun guztien gainetik, Udako Euskal Unibertsitatea birugarren aldiz egin da. Eta, ia oraindik bertatik, IV Udako Euskal Unibertsitateari begira jarriko gaude.

Jende aldetik, zer pasatu da aurtengo Euskal Unibertsitatean? Aurten aurreko urtetan baino jende gehiago izan da. Zenbat? Egutero, bata besteaz, berrehunen bat lagun. Xifra hori bene-benetan inportante da! Jendeari dagokionez, beste gauza bat ere esan behar da. Eta hauxe da: atzerritik etorritako jenderik ere izan dela aurtengo Euskal Unibertsitatean, hain zuzen bast flamendar eta Korzegako batzuk. Fenomenu honen esannahia guztiz haundia da. Denok dakigu, ondo baino hobeto, zein zaila den Euskal Unibertsitatea edo gisa hortako beste erakunde bat eratu eta aurrera bultzatzea.

Lehen esaten genuen bezala, orain IV Udako Euskal Unibertsitateari begira jarri gara. Unibertsitate horretan irakaskuntza beren gain izango dutenek badute zer eginik asko. Aurrez eskertu nahi diegu egingo duten lana! Beste guzietan, berriz, datorren urtean ere Unibertsitateari etor daitezela eskatu nahi diegu, eta ahal bada, jende berri gehiago lagun dutela.

## IRAILAREN 7AN MANIFESTAZIO BAT GETARIAN

Autobidea edo autopista dela eta, amaika komeria gertatu Euskal Herri guztian. Irailaren haseran, argitara eman duenez prensa ofizialak, Domostiatik Iruna bitarteko autobidea jendearentzat zabaldu egingo da. Horrela bada, Bilbo-Behobia autobidea ia amaiturik geldituko da.

Eta hemen, ipar aldean, autobideko lanak nola doaz? Lehenengo, luzaz, autobide metro bat bakarrik ere ez da egin. Bigarreno, orain berriz lanari ekiteko garaian, zenbait istilu berri sortu da. Getariako herria haserre dago.

Oraingoz, Getariatik autobidea pasatzerakoan una batean, autobideak herria bi zatitan moztuko du. Herriak, ordea, hori ez du ontzat eman eta beste irtenbide bat proposatu du. Irtenbide berria, herriak azaldu duena alegia, hauxe litzitzeko: autobidea, herria bi zatitan puskatu beharrean, lur azpitik eraman.

Beraz, Getariako herriak, alkatesa eta beste herritar jende asko tartean dela, manifestazio bat eratu du irailaren zazpigarren. Defense de la Culture deituriko erakundeak eta halde, Maite Idirin, Larralde-Etxamendi euskal abeslariak ere parte hartuko dute.

## I. U. T. ETXE BERRIA GORAKA ARI, BAIONAN

Lehen ere, behin eta berriz, aipatu ohi izan dugu zein asmo eta ahalegin haundiz lanean ari zen (eta ari den) hego aldeko industri-erxe batzuk Baionako Industri eta Ganbarako zuzendari Jacques Saint Martin jauna. Hibaiairen bi aldetako industri-erxe batzuen artean horrelako harremanak guztiz interes garriak iruditu zaizkigu orain baino lehen. Baina harreman hoik eramateko eran, beti ez bada ere maiz bai, gauza pozgarririk guti ikusi izan dugu gu euskaldunontzat.

Duela hilabete batzuek, hibaiairen bi aldetako industri-erxe batzuek, bilera batean, hartu zuten erabakia aurrera ari da. Ze erabaki? Hibaiairen bi aldetako industri-erxe batzuek hoinen arteko harremanak hobek eta, bide-nabar, erraxagoak izan zitezten, ikastetxe berezi bat eraikitzea komenikoa zela uste izan zen. Ikastetxe horretan, gazteak preparatuko dira, hibaiairen bi aldetako industri-erxe batzuek hoinen harreman eta elkarlanerako bereziki. Beharrezkoa izango da, horretarako, gaztelania eta ofrantsesa ongi ikastea. Nahietaezkoa! Beste hizkuntza guztiak maila berdinean jartzen direlarik, hots, nahi den hizkuntza aukera dezake ikasleak, adibidez, ingelesa, euskara holandesa... Gutxiago egiterik ba ate da? Euskara ere nork berak aukera dezakeen hizkuntza hoinen artean azaltzen da. Ikasketen lehen programa argitara eman da (hortaz beste baten jardungo gara).

Galdere bat hibaiairen bi aldetako industri-erxe batzuek buruzagi eta eratzaila guztiei: beren industria indartzeko gure Herriaz baliatzen dira; zenbat ematen eta laguntzen diote Herriari bere behar guztietan jeneralki, eta euskara gaukotasan mailara altxatzen bereziki?

## JEAN PITRAU, ZUBEROTARRA, HIL DA

Orain hilabete batzuek hil zen Jean Pitrau, Zuberoako baserritar bat genuen. Gizon azkarra, nahiz eta eskolatua ez izan. Baserritaren alde amaika lan egin zuen, goikoei, behin eta berriz, aurpegia azalduaz. Berrogei urtekin hil da.

Horrelako gizon baten berri jakitean, beste guztioi, eta batez ere bera bezala baserritik bizi diren guztiei, bihotza berotzen zaigu. Gure azken agurra egiten diegu, Jean Pitrau-ri!

## BELOKEN, EHUN URTE BURUAN, EUSKARAREN EGUNA

Aurten ospatzen da Belokeko fraile-etxearen ehun uhte betetzea. Irailaren letik hasi eta zazpigarren arte, jai bereziak izango dira.

Eta azkenengo egunean, irailaren zazpigarren, Euskararen Eguna ospatuko da. Egun horretarako, beste jende askoren artean, Etxegaray gotzai jauna etorriko da Belokera.

Lehen ere lan ugari egin du Belokek euskara eta Euskal Herriaren alde. Aurrera ere bide berekiko jo dzala, opa diegu eskerririk beroenak emanez.

URZOLA

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria, 10 - Urrutizkña: 41 77 51 - Etxekoa: 42 27 00 - DONOSTIA

# BAIONAN I. U. T. (I)

Azken hamar urte honetan goi mailako eskola berezi hauek, I.U.T. deituak, asko zabaldu dira gure artean.

«Bacalaureat» deitu bigarren mailako etsamina pasatu eta gero, bi urtez, ofizio bati buruz zuzenki preparatzen dira haretan ikasleak. Ondoko urteetan ofizio hori praktikatzen duten ber denboran, beste ikasketak batzuk egiteko posibilitatea ere badute, molde edo era berezi horri esker. Joan den martxoan erabaki zen holako I.U.T. baten irekitzea Baionan.

Baionako honek bi berezitasun izanen ditu:

—Alde batetik «esperimental-a» izanen da. Horrek erran nahi du programa orduak, pedagogia bera, urtetik urtera aldatuz joango direla, entpresak eta ekonomiak galdatu beharren arabera.

—Bigarren gauza: «bi mintzairaduna» izango da I.U.T. hau. Bai frantsesez eta bai gaztelaniaz (españolaz) emanak izango dira horko irakas-aldiak. Euskal Herrian muntatu denez geroz, biziki berezitasun interesanta dela iduritzen zaigu. Gainera ikasleen erdiak Bidasoaren ipar aldekoak izango dira, eta beste erdiak hego aldekoak (60 bat orotar).

Eta euskaldunek lehen bai lehen ezagut dezaten eta balia dezaten I.U.T. hori, hona oraingoz, zer programa muntatu izan den. Erran dezagun ere, mugaren bi aldetako harremanak akulatzeke muntatu denez geroz I.U.T. hori, lehen sail hontako gaiak «Komerzio eta Lantegi Gidartza» teknikak izango direla.

## PROGRAMA (lehen urtea)

### 1en Mintzairak

#### a) Obligazionezkoak:

Gaztelania edo Frantsesa, kursoaren hastapenean 6 astez, mintegi (seminaire) moldean. Ondoko kursoetan denek konpreni dezaten mintzaira batean edo bestean eman edozein kurso ... 120 oren.  
Kurtsoak urtean barna ... 50 oren.  
Ingelesa ... 100 oren.

#### b) Hautatzeak (ez obligazionezkoak).


Alemana-Portuguesa-Euskara 50 oren  
Irakaskuntza honen bitartez mintzaira eta mintzairadunen mundua (gizartezkoa, kulturala...) ezagutzea zuzen ikasleeri.

2en Espresio eta komunikabideen teknikak ... 60 oren.  
Bai izkirioz, bai elez. Buru laneko metodologia.

Entzun ikuskan ibiltzen diren mintzairak.

Solas aldietan edo talde lanetan nola jokat.

3en Matematikak eta Estadistikak, 120 oren.



Edozein problema zientzia hizkuntzan ezartzeko gai izateko.

Lantegi organizazionean, gidartza eta komertzioan ibiltzen diren matematika tresnak (esadistika seriak, finantza problemak).

4en Informatikaren hastapenak, 30 oren.

Bigarren saila: lantegi edo entpresaren ezagutza general bat.

1 - Sozio-ekonomi ingurumena, 50 oren.

Ekonomiaren martxaren ikuspen jeneral bat emana izanen da ondoko ikaslea bera kapable izan dadin informazion eta dokumentazion berezi batzuen ondorengotik ibiltzeko. Berziki frantsesa eta espainola mintzatzen duten herrien ekonomia aipatu da.

2 - Lantegi edo entpresaren ekonomia, 100 oren.

Lantegiaren ezagutza ekonomikoa barnetik (kostuak, produzioaren muntatzea) eta honen hartu emanak ingurumenarekin (galdeoren estudioa).

Nola munta daitezkeen organizazio diferentak lantegi bat martxan ezartzeko (organigramak, manamenduen estruktura).

Hauk deitzen dira estruktura formalak.

Baina manamendu hori izan daiteke, lantegi komunikabideak bezala informala (hemen sortzen dira gizon langilearen psikologi ezagutza, bai eta taldeen edo multzoen dinamika). Organizazion problem hoiek beti lotuak daude kultura liferentere berezitasunei, bai manamendu moldearentzat, bai partizipazion moldearentzat.

R. KANBLON

# BESTE BI LIBURU

Luis M.<sup>a</sup> Muxikak idatzitako GIZARTEA ETA PARASOZIALISMOA bata; bestea berriz, Iñaki Azkunek egindako ENEKO HARITZA.

«Aintzinako sozio-ekonomia» argitara eman zuen, lehen, Luis Marik. Erdi Haroa aztertzen digu oraingoan. Egilearen asmoa ez da gertaera pila bat bakarrik kontatzea, gertaera hoinen sustraiak agertzea da bere helburua. Vicens Vives-en eskolari jarraitzen zaio.

«Erdi Haroa arras interesgarri da. Europar XVII. mendetik gerora sortuko diren mugimendu eta erreboluzio askoren erroa, haro horretan aurkitzen da. Gaurko pentsagiro eta mugimendu sozial batzuek, X. mendeaz geroz eduki zituzten beren lehen planteamendu erlatiboak. Kritikagiroa oso zabaldu aurkitzen da XII. eta XIV. mende bitartean. Lan honetan ez gatazkio lotuko kulturari sozio-ekonomiari bezainbatean. Eta sozio-ekonomi egoera, egungo protesta eta kontestazio giroan begiratuko dugu, alafede», dio egileak.

Erdi Haro sozio ikuspegi orijinal bat eman nahi da liburu honetan, mugimendu eta talde parasozialistak zehatz agertuz. Alderdi honetatik badu meriturik liburu honek.

Gai hauek ikasten ari direnek badute euskaraz liburu bat.

Iñaki Azkunerena dugu bigarren liburua. Nobela honek VIII. mendeko Nafarroa du oinarritzat.

Zenbait pasadizo asmatuak dira, beste asko ez, ordea. Euskaldunek erresuma bat sortzeko izan zuten adorea eta nahia bene benetakoak dira. Ez zuten inoren mende izan nahi, beren buruen jabe baizik.

ENEKO HARITZA lehen errege euskaldunaren historia dugu euskaldun haien adorea eta nahiaren lekuko.

«Euskal Herria, etsai gogorrez inguraturik zegoen, bere buruaren jabetasuna galtzeko arriskutan... Kezka eta larri bizi ziren gure euskaldunak hainbat etsairen erdian, eta beren burujabetasuna gordetzearren, guztioi biltzeko beharra gero eta handiago zen, dio Iñaki Azkunek, liburuaren sarreran.

Izan ere etsaia besterik ez zuen ingurumari guztian. Eta Karlo Magna eta Abd al-Rahman-en indarrak bazter guztiak ikaraz beterik zituen.

Frankotarren inperioa suntsitu zen, baita Cordobako emiratoa ere. Baina euskaldunek iraun egin zuten eta iraun ba diraute.

«Euskaldunak ez ziren xanxetako gizonak, eta berenari eutsi zioten, odol ugari izuri behar izan baldin



ENEKO HARITZA  
Iñaki Azkune

GERO KIMU saila

bazuten ere», dio egileak.

Hona gaztetxoentzat beste liburu egoki bat.


GIZARTEA ETA PARASOZIALISMOA

- Luis M.<sup>a</sup> Muxika - GERO.

ENEKO HARITZA - Iñaki Azkune - KIMU.

Irastortza

# Mojak euskalduntzen KRISTAU LARRITUAK



Karmele Urdanpilleta gela bateko irakasle.

## IKASTARO HARRIGARRI BAT

Bai, ikastaro harrigarri bat. Mojatxo batzuk ari dira, Donostiako «Corazón de María» deitu ikastetxean, euskara ikasten. Hobeto esanda, beren ikastetxeetan euskara nola irakats ikasten.

Loiolan egin ohi dituzte euskal erlijiosoek beren batzarreak noiz-behinka. Badituzte beren batzordeak. Loiolako Irakaskuntza Batzordeak antolatua da, hain zuzen ere, ikastaro hau.

Loiolako erlijio batzarrean behin eta berriz agertu izan da arazo hau: mojak, beren ikastetxeetan euskara irakasteko ez direla behar bezala gerturik.

Premia horri erantzutekotan sortu zen aipatu batzarrean batzorde berezi hau: irakaskuntza batzordea, hain zuzen ere. Eta premia horri erantzuteko egin zen orain dela denbora asko ez dela Labkaoko beneditarretan lehen ikastaroa.

Orain Donostian dihardue. Abuztuaren 25ean hasi eta irailaren 6an amaituko da ikastaro hau.

Goizean, 9,30etatik 13,30 arte iharduten dute. Arratsaldean, 4etatik 6rak arte.

45 lagun ari dira ikastaro honetan. Bospasei andereño ezik beste guztiak mojak dira. Gertakizun berria da hau ere Euskal Herrian. Gertakizun berria eta pozkarria.

Euskal Herria erdalduntzen egin duten hainbat lan euskalduntzen egiten baldin badute salbatuak gara. Ez da beldurrik.

45 moja beren ikastetxeetan euskara irakasteko gertutzen. Hamarren bat kongregazio desberdinetakoak dituzu. Beren artean ere euskaraz mintzo ziren. Elkarrekin euskaraz mintzo zen moja talderik ez genuen orain arte ikusi.

Aditza, morfologia, deklinabidea, euskal literatura, kondaira eta abar ikasten dituzte ikastaro honetan.

Karmele Urdanpilleta, Jone Tapia, Oñaki Usabiaga, Erzibengoa, Agirre, Joxe Antonio Muxika eta abar dira ikastaro horretako irakasleak.

Ikastaroaren arduradun aita Eufronio Agirre dugu.

«Ez ditezela gure monjak garaien eta erriaren kontrakoak izan» esan dizue oraindik orain Aita Agirretzek.

Nahiko sinesgogor bagara mojen euskaltzetasunaz. Izan ere herriaren nortasunaren eta euskaltasunaren aurkakoak izan zarate orain arte.

Halere argi izpi bat piztu dela dirudi mojen zeruan. Izarño bat keinuka ari dela dirudi. Zerbait da lano beltzez beterik den Euskal Herri honetan.

IRAOLA

## ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE-TXUKUNKETARAKOAK  
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutizkiñak:

Etxeak: 65 19 60

Landolakoak: 65 19 33

URRETXUA

Urrutizkiñak:

Landolakoak: 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'gn

Bi atso supazterrean; illetak elkarri jotzen ari dira. Joxepantoni da mintzo: —Zer egingo dugu bada? Il arte bizi. Martolaren erantzuna: —Beterik ezean, orixe egingo bagenu!

Kristau askoren mingaiña, il kanpaia da, Elizari so dagoitenean: elizkizunak lur jota. Elizak gero eta utsagoak, banatuak kristauak, apaizak urri. Illunpe eta ondamedia baizik ez dakusate Eliz barruan.

Kristogan sinismena eta itxaropena galdu ote dugu bada? Leengoa ere ez zen gero guztiz apain eta zoragarria. Elizkizun utsezko kristautasuna gure kristau izate ura; eguneroko bizitzarekin loturarik gabeko kristautasuna, geienetan beintzat.

Gaur poliki poliki (mantsoegi bear bada) kristau talde koskorretan biurtzen ari zaigu gure Eliza; errigintza eta gizonen burrukekin, gero eta geiago parte artzen dute taldeetako kristauak; agintarien eliza, triumfalismoaren eliza, ordena eta burgeskeria babesteko eliza, desegin nai dute taldeetako kristau auk; eguneroko bizitzarako kongromiso sendoak artuta, eliza errikoia, beartsu, erbestetuen, zapalduen eta baztetuen eliza egin nai dute taldeko kristauak. Iraultza-reboluzio izugarria dagite Amerika azpiko kristauak. Eliza eraberritzeko saiok European zear ere ari dira.

Saiaketa berri bati ekin diote, oraindik orain, Paris ondoko eliztar batzuek. Saint Stanislas des Blagis deritzan parrokiari. «Chrétiens en deroute» izena zortua dute Kristau talde berri bat. Ezin dut garbiki asmatu bere esan-naia, «Kristau Larrituak» izenaz aipatuko ditut.

Elizak, bere eraberritzeari ezin diezaioke utz. Gaur egunean ere badu bai, zertaz eraberriturik. Zer bideri eldu ordea? Nor bere parrokiako loturak apurtu eta Eliza Ofizialetik kanjora kristau talde berri bat sortu? Edota, Parrokiak puskatu gabe, bere inguruan talde berria sortu eliz eraberritze eta kristau Iraultza-reboluzioa egiteko?

Bigarren bide oni eldu diote taldeko auk: gu ez gara elizatik kanpora poan, zioen aietako batek; gure Parrokiako kristauak ez dugu nai elkarte apurtu.

Badute taldekoek, elkartzeko toki berezi bat. Auzoko ardura dutenak, eskoletako aurren gurusoak, sindikalariak, politikariak eta abar noiz bein biltzen dira. Bakoitzak bere esperientziaren berri ematen du; bizitza ori eztabaidatu, elkarrekin alderatu-konparatu eta Ebanjelioa irakurtzen dute beren bizitzarako argi berri bat arkitzeko. Tradiziozko elizarekin zer egiñik ez zegoelata, elizarekin puskatutako kristau batzuek talde onetan arkitu dute beren sinismenaz konkretuki galde egiteko era berri bat.



Lurreko arazoetan aukera egin bearrean da kristaua.

Gaur, esan daiteke, parrokiako jendearen legami biurtu dela kristau talde ori. Pizkor jokatu du erretoreak; jende guzien aurrean, eliz aretoan bil erazi zutuen taldekoak. Gai auk astindu zituzten: «Zer da ongi ez doana elizan? Zeren billa dabilta kristauak?»

Parroki bizitzan gero eta biziago sartzen ari dira taldekoak. Parrokiako meza batzuk oiek zuzentzen dituzte. Biltzen diren guzieg dute mintzatzeko eskubidea. Elkarrizketa gozoan, Jainko itzaren esan naia aztertzen dute. Meza aietako batean bixigarri den gai oni buruz jardun ziren: «Zer da Kristo zuretzat, 1975 urtean, zeure eguneroko bizitzan?»

Jendea, reflexio sakonetan murgil erazteko, badakfite taldekoek, eliz atarian, idazki batzuk ipintzen, nai dutenek ar ditzaten. Auetako batek onela zioen: «Zer da askatasuna langabeentzat? Zer da askatasuna irugarren muduarentzat, atzeratuak bizi diren errientzat? Zer askatasuna, telebisioa ikusterakoan?»

Beste idazki bateko gaiak auk ziren: «Gure Gizarteak sortzen ditu beartsuak, etorkiñak (Inmigrados) gaizkilleak, ganster eta gizon iltzailleak, eta gizarte orrek berak gero jo, ebaki eta txikitzen ditu».

Konsumoko gizarte, jerarkia, diru irabazteko elkarrekiko burruka eta kompetentzia, norbereko ikeria, zuzengabekeria, bakarkeria, gure biziera eta lanak dira, aztertze, jendeen eskuetan taldekoek uzten dituzten beste ainbat gai.

Lurreko arazoetan aukera egin bearrean d akristaua, diote taldekoek. Aukera ori egiten Ebanjelioak erakutsi bear dizu. Ebanjelioa ez da ez baterakoa eta ez besterakoa; Ebanjelioa ez da neutroa. Guretzat, beste gauzaren artean, gizonaren askatasunerako burrukan dago gure sinismenaren agerpena. Parrokiako elizkizunetan elkarrekin parte artzen dugu eta gero eguneroko bizitzan ez dugu elkar arkitzen.

Gure parrokiaren legami bezala, noiz ikusi bear ote ditugu orrelako Kristau talde bikoñak? Noiz, talde auei esker, Eukaristi Ospakizunak, erritarrek bizi elkarrizketan parte artzen dutela? Noiz agertuko ote dugu geure sinismena gizonen arteko eguneroko burruka bizian?

AROSTEGIK

## CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE PAMPLONA

SARASATE, 5

TELEFONO 224440

Onen ajentziak erri auetan dituzu:

Tudeal, Billaba, Huarte-Iruñe, Etxarri-Aranaz, Txantrea, Errotxapea, Azagra, Eneritz, Martzilla, Isaba, Huarte-Arakil, Ensanche, Lerin, Otxagabia, Karkar, Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Kadreita, Andosilla ta Noain-Beriain.

Agencias:

Tudela, Villava, Huarte-Pamplona, Echarri-Aranaz, Chantrea, Rochapea, Azagra, Eneritz, Marcilla, Isaba, Huarte-Araquil, Ensanche, Lerin, Otxagabia, Karkar, Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Cadreita, Andosilla y Noain-Beriain.





## lezo

## NERE ERRIA

## — I —

Milla beatzireun irurogeita amabosgarrengo urtez, alderdikeri gabe, errira, begira jarri naiz ustez. Pentsatzen nago, i ere Lezo, ornitu aiz buruauztez; urteak joan da "progresoaren" akatsez edo birtutez.

## — II —

Gu ume giñan, orduan ez zun, gaur egunean dun antzik. Orixe lasai esan diteke, ortan ez dago zalantzik. Gaur dagon jende erdirik ez zan, ezta-re gaurko izkuntzik. O ontziñako erri maitea, nere partetik goraintzik.

## — III —

Zenbaitek dio komeni dela aundituztea erria. Esan diteke uste dutela ote den dena urria. Baiña orretan bakarrik badu bere gose egarrria. Muiñik gabeko aunditze ori gauza urrikalgarria.

## — IV —

Kanpotik onuntz etorri eta ogibidean jarriak. Lanez ornitu eta eskeini etxebizitza erriak. Ori guzia egin duk, Lezo: eta landare berriak izango dituk geientsuenak etsai ikaragarriak.

## — V —

Jakin bear duk au esatean zertaz naizen gogoratzen. Kristoren itzak izango dituk, ni ez banauk deskuidatzen: esaten zian bi jaun serbitzen inork ez zula asmatzen; Nerekin biltzen ez duen arek nere aurka du zabaltzen.

## — VI —

Jarri zazute krabelin edo larrosa ontzi batean. Iraun dezake inork laguntza egiten dion artean. Naiz ta ez jardun beraren aurka amorrut bete batean, igartuko da ardura gabe uzten bazaio pakean.

## — VII —

Ez da prezixo, beraz, errian aurka ziñez jokatzeara. Bestela ere etorri leike erriaren ondaztea. Aski da gure oiturak eta izkuntza ez maitatzea. Ortik aurrera bakarrik dator erri gaixoa iltzea.

## — VIII —

Zenbat fameli ote dituk or ire babesa dutenak. Nunbaitetikan etorri eta gozoro igan daudenak. Baiña biotza erdibitzen duk, nolatan ez lertu penak! Ik bizileku emanagatik i maitatzen ez autenak.

## — IX —

Au ikusirik, nor ez da jartzen biotz barrutik miñetan? Ikusitzean gure izkuntza zenbait jenderen oiñetan. Jainkoak dakin tokitik datoz ta sarri gure gainetan. Au ez da inon gertako baizik Euskal Erriko sailletan.

## — X —

Bateren batek pentsa dezake geiegi naizela mintza. Okerbideetik baldin banago neuk jango dut nere itza. Baiña errexi ez da irtengo gaur barruan dagon gaitza. Naiago nuke askotaz ere dezkuidatuko banintza.

LEXOK

## pasai donibane

## ITXASMEDI, MUSIKA TALDEA

Datorren ikastorako deia, SOLFA, TXISTUA ETA ESKUSOI-NUA.

Izenak, emateko epea: Irailaren Itik-6ra bitarte.

Baldintza bakarra 9 urtetik 11 bitartekoak izatea.

Izenak nun eman: Mari Lore dendan (Enparantzan) Etxarri

Itsasmendi elkartearen Eiro zapategian (Meipin)

Izena ematen dutenekin bilera bat egingo da, Irailaren 8an, Bonantzako akademian.

## EREIN HAZIA

Nekazariak, orain direla hilabete batzuk ereindako gari hazia, jaso dute berriki. Gure herrian, esate baterako, argi eta garbi ikusi izan dugu txistulari taldearekin gertatua; izan ere, azkeneko hiru urte hauetan, txistulari lorategi ederra eta bikaina sortu bai zaigu. Herrian, ez da sekula santan txistularirik falta izan; pare bat edo hiru beti ezagutu izan ditugu. Egun, ordea, 24 txistulari osatutako talde bat dugu Pedro Mari Sein gaztearen zuzendaritzapean. Ikasbide ederra bezain zoragarria! Ez da beste biderik, alegia, lehenbizi erein egin behar dugu, hazia eldu eta gero fruitua jaso dezagun.

## Inalurretak

## bermeo

## LASTER BERMEOKO JAIAK

Gure erria ere jai usaiñak artuta dabil. Eta gazte eta zaar pozik izaten dira aldi onetako oporketak artzeko. Gainera, are pozago ondikarren aspaldiko adiskide onak ikusi eta besarkatzeko erarik bada.

Irailaren 7tik 16ra dira aurten: aurre eguna igandea delako. Eta entzun dugunez inoizko jaiarik onenak izango ei direla, diñoe. Neu beintzat onetara nago.

Lau Euskal Erkietako uri nagusietan «semana grande» deituten deustoe euron jaiari. Guk, umillez, emekoari «semana pequena» deituten deustagu. Baiña ala eta guzti ere, gure jaiak benetako andiak izaten dira: naizeta alfer uri onetan zezen ilketarik izan ez.

Emeko jolasak itsasoko jai ikusgarriak dira; leorrekoak ere bardiñ. Euskal kantu, abesti eta dantzarik politenak. Arin ariñak. Aurrekuak. Suziriak. Sen jai geiago eskatu liteke?

Argazki leiaketa: «Lebatzamu» sari ederragaz. Arraunlarien txapelketa gogorra; saritzat, ikurrin polita eta dirua.

Jai onexek eta geiago izango dira aman egun zoragarriak.

ONGI ETORRIA itsasoz eta leorrez zatozen guztioi.

JULEN URKIDI

## azkoitia

Abuztuaren hamabostean, Herriko jai nagusiak. Oporraldian murgilduta itxoiten geunden festok noiz irixiko.

Txango egokia herriko gorabehera, euskaldungoa, langile giro, kirola eta beste ekintza orenen berri adierazteko.

Honela, egunkarietan, herriko buruzagien mota ugaritako ekintza eta mila aurrerapenen berri damaiguten arren, ez ninteke intzentsu lurrun gehiegi ematen has. Bildur bait naiz, hitz jarioz behin eta birritan agindutakoak maizegi, murrizten ez ote gabiltzan.

Lortu den aurrerapen eta ekintza aurrerakoi oro txalogarri dira, baina agian gauza garbi da oker haundiak ditugula eta erremedio haundiz arantzun behar diegula.

Betiko leloa! festok heldu bezain agudo joahak zaizkigu behin eta

berriz. Eta guretzat, langileontzat, egun zaratsatu, distiratsuegiak izan ditugu agian. Ahaztu bide ditugu zenbait sendiren larritasun, ittolari ditugun hainbat euskaldunen intziri eta garrasi.

Euskaldunok arloterik arloteenak eta analfabeturik analfabetuenak gara; azkoitiarrak xanorik xanoenak. Hain ohituak bait gaude kanpokoei erruak botatzen; ez dugu inoiz pentsa akatsak geureak ditugula.

Egunero lanera joaten gara, egunero oheratzen, lasaiki irabazitako diru apur baten segurtasunak haundinahi eta harrokeria txertatzen digularik.

Hau duk hau ondorengoen ispilu ta erudu izanen den azkoitiar langileriaren egoera gaitz eta tamala! Hala ere "USTE DUT LANGILERIAREN ESKUETAN DELA EUSKALDUNGOAREN GEROA, LANGILEAK BAITIRA GAURKO EUSKALDUN GEHIENAK" diosku Jean Louis Davant zuberotar euskaltzainak.

Langintza itzala gurea, bihotza morrontzabetik at, mundu zuzenago bat erdiesteko. Inungo teilatura harriak bota gabe geureaz ardura gaitzen AZKOITIA eta EUSKAL HERRIAREN zerbitzuan.

LAGUN

## deba

## LIBURU BAT

Aldabaldetrek, Urdangarin eta Rekaldek osatua argitaratu berri da nuklear arazoaren azalpen gisa liburu bat. Indar honen sorketa, moldakera, nazio aurreratuaren joera, hainbat gizon ospetsuren iritzi eta Deban indar-etxe bat kartzeko egitamuak eta abar egoki aztertutik, irakurgai jakirigarria eskeini digute mutil azkar ta trebe hoiak. Eta, urte terdi inguru hontan gaiari buruz azaldu diren eraskinek izan duten arrera ona ikusirik, gauza interesgarriaz datorkigun liburu hau, jende asko eskuratu nahiko duelakoan nago.

## JAI EZ ZERBAIT

Aurretik nabaitzen bezala aurtetako San Rokeak giroz zeharo aldatuak izan dira. Herriko azken gertakizunek beste ondoren ezin ekar zezaket. Algara eta alaitasuna gehien pizten duten eraketak bazterturik jaiak goibeldu ziren, eta une labur butzuk kendurik beste edozein garai zela zirudien.

## IKASTOLAREN ALDE

Beste herri batzuetan bezala batzordekoek jaietarako taberna antolatzen zuten et jendeak bai lan eta sosak uzte aldetik jator erantzun duela esan behar.

Agiriko da Euskal Herrian zehar ikastola izenak bereganatze bat duela; oraingoan ere hala izan da, ze pozik esan nezake parte hartze eta irabazi aldetik garaile irten dela.

IDIAKEZ



**FAGOR**  
edaria  
epela dagola?  
**FAGOR** 'ek  
oztuko  
du bereala

## donostia

## TRIKITILARIEN TXAPELKETA

Urteorotan bezala, Dolostiako CENTRO DE ATRACCION Y TURISMO elkartean, TRIKITILARIEN LEIAKETA antolatu du, onako arautan finkatutik:

1. Erromerietan ibili oi den Euskalerriko edozein trikitilari, atek zabalik izango ditu, leiaketa onetan.
2. Nai ta ez, sañu tikiz eta pandero-jotzaille batetaz baliatu bearko, TRIKITIXAK.
3. Leiaketa, urrengo irailaren 7garren egunez, arratsaldeko saietan asita, Trinidadako plazan egingo da (Donostian). Eta trikitilariak, ordu erdi leenago, an biltzera beartuak gelditzen.
4. TRIKITILARIEK, kantuz naiz kantu gabe, lau saio emango ditu: bi TROKITIXA (bizkaitar erako), eta FANDANGOA eta ARIN-ARINA. (beetarrenak). Luze-laburrean, joaldi bakoitza, bi muntu ta erditik iru ta erdira bitarteko.
5. Izenak ematea: Irailaren 4garren egunez, eguerdiko amabietan itxiko da izenak emateko epea. Kartaz naiz telefonoz, zuzendu Donostiako CENTRO DE ATRACCION Y TURISMO ETXERA, naiz 81-27-47 telefonora (Azpeitian). Egun orretatik kanpo datorrenik, ez da onartuko inola ere.
6. Jaialdiak muga bat izan dezan, aurtengo leiaketan, ZORTZI TALDE bakarrik onartuko dira. Leenik izenak ematen dituzten zortziak.
7. ariak: Lenengoa: 15.000 pezeta eta txapela. Bigarren: 10.000 pezeta eta kopa. Beste guzietan, berdin; 6.000 pezeta, talde bakoitzari.
8. Trikitilariak, antziñako usariara jantzita etortzea eskatzen zaie aurret. Eta juradoaren ustetan ongien jantzen danarentzat, kopa izango da. Baita KOPLARIRIK onenarentzat ere.
9. Epai-maikoak antolatzea, antolatzaileen esku izango da. Eta beraien erabakia, nai ta ez onartu bearreko.
10. Emen aipatzen ez dan beste edozein punttu erabakitzea, antolatzaileen parte izango da. Bestalde, leiageta onetan esku artzeak, oiñarri guzien onartzea berekin darama.

**Ez Merkenak**  
**Bai Onenak!**  
Janari bidez izaten dira ganadu on, indartuak, eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, berebiziko aragi pilleak; gahera esne putzuak, Olek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.  
**FANDERIA**  
**ERRENTERI**

**JOSE ZINKUNEGIBEN**  
**OPTIKA DONOSTIAN**  
URTEETAN LANEAN OHITUA  
Hernani, 4  
DONOSTIA

Transportes **azkar s. a.**  
ERAMAN - EKARRIAK, KAMIOI AUNDIAK  
Barcelona Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.  
Donostitik egunero:  
Iruña, Bilbo, Gasteiz, Alicante, Elche, Elda, Murcia, Cartagena, Granada, Almeria, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca.  
Astean Irutan:  
Malaga, Sevilla, Jerez de la Frontera, Cadiz, Lugo, Coruña, Orense eta Vigora joan etorriak.  
Hernanirako bide nagusian, ERGOBIA auzoan, DONOSTIAN.  
Urrutizkiñak: 552650 - 552654  
Apartado 1381

# Luis Bilbao eta Pruden Azpiazu Trikitilariak

Arlabango mendartetik Araban sartuz gero Landa da aurkitzen dugun lehenengo herria. Ezaguna da inguruetako jendearentzat bere ondartzak gatik. Herriko jaiak San Bartolome egunean ospatzen dira eta urtero herriko gazteriak zerbait gertutzen du bertako eta kanpoko biztanle eta ikuslariari aurkezteko. Guk aspaldidanik ezagutzen ditugu jai hauk eta aurten ere harantz abiatu gara. Jai guztietan bezala hemen ere dantzak toki berezia hartzen du. Baina han ikusita ez genuena zera da: trikitixa batez erromeria egiten. Izugarritzko giroa lortu zuen trikitixa honek San Bartolome bezperan eta biharamunean hantxe bertan, berriro, ziharduena guztion gorputzetan alaitasuna jartzen. Atsedean batean eta jakinahiak eramanda, haiengana jo genuen galdera batzu egitera:

—Zeintzu dira zuen izenak eta nongoak zarete?

—Ni Luis Bilbao nauzu. Soinujole eta Bizkaiko Urdurizen jaiorik naiz.

Ni Pruden Azpiazu; atabala edo pandereta jotzen dut. Hau bezala Urdurizen jaiorik.

—Zenbat urte duzue?

L. B.: 67 urte. P. A.: 73 urte.

—Zenbat urte daramazue trikitilari bezala?

L. B.: Betidanik, nor bere aldetik, ibili gara erromeriaz erromeria. Ni soinurol eza Pruden panderetaz. Baina orain dela hiru urte erabaki genuen elkarrekin ibiltzea eta hemen gaude.

—Nondik datorkizue zaletasuna?

L.B.: Nere aita, entzun dudanez, nik hari jotzen inoiz entzun ez niolako, soinuujolezen. Behin, baserriko ganbaran bere soinua aurkitu nuen; hura hartu eta pixkanaka pixkanaka zaletasuna sartu zitzaigun. Nere osaba bat ere soinuujole zen, eta sarritan hari entzun ondoan jo dut jota asko. Gaur dakidan gehiena osabarengandik jaso nuela esan dezaket. Gero, noski, praktika izan da maisurik onena. Honetan hogeitamazortzi urte daramat.

P. A.: Ba, ni hamalau urtez hasi nintzen pandereta jotzen. Eta ordutik hona zerbait euri egin du... Tarte honetan kisateko nahiko asti eduki dudala esan nahi dut. Beti herriz herri ibili naiz eta erromerietan ikasi dudala esan dezaket.

—Nolako musika egiten duzue?

—Trikitilari garenaz gero jota da guk jotzen dugun gehiena: hiruzpatal eratako jota.

—Baina nik hemen "tango" eta "pasodoble" batzu ere entzun dizkizuet...

—L.B.: Bai, noizean behin baten bat etortzen zaigu eta zuk aipatutako hoik eskatzen dizkigu. Eta guk, eskatutakoa baldin badakigu, ezin diezaiokegu uka. Baina zuk entzun ahal izan duzunez, jota jotzen gehienik.

—Non ibili zarete zuen soinua eskaintzen?

—P.A.: Bizkaiko herri gehienetan izan gara esan dezakegu, baina baita handik ez gara irten, ere. Herri honetan gaur egiten duguna Araban emandako lehenengoa da.

—Egiten ahal didazue zuek ezagutzen duzuen trikitixaren kondaira tipik bat? Esate baterako: Mugimendua, gaurko egoera...

—P.A.: Euskal gauza askotan egiten den bezala, trikitixari doakiona ere bi zatitan bana dezakegu. Gerra aurreko eta ondorengo aroak. Dударik gabe, trikitixarendako lehenengoa bigarrena baino hobea izan da. Beste giro batean bizi ginen, eta horri zegokion musika egiten zen erromerietan. Gerra ondorengo aroak aldaketa handia dakarkio gure herriri eta, ondorioz, trikitixari. Lehen zedukan indarra galten hasten da. Giroa eta gizarte guztiz ezberdin dira lehengokoekin konparatuz gero. Erronmerietan ez da lehen ikusten genuena sumatzen. Aldaketa guztiz ezkorra izan da...

L.B.: Guk, gerra aurrean erromeria batetan jotzeko, ordaindu ere egin dugu, beste batek Tokia ken ez ziezagun. Orain aitzitik...

P.A.: Hala ere, beste gauza batez ohar gintezke. Hamar urtetatik hona mugimendua gorantz ari zaigu.



Baina ez okertu, trikitixa entzuten duen jendearen artean, ez jotzen duenaren aldetik.

L.B.: Trikitixari leku handia txistuak kendu dio eta honek inoiz izan ez duen garrantzia gaur du. Non-nahi ikus dezakegu txistua jotzen.

—Gipuzkoan, ezagutzen dudanez, azken urte honetan badago mugimendu bereizi bat trikitixari dagokionez. Talde ugari dago eta, garrantzitsuena dena, ikastoletan berpizkunde berri bat sortzen ari dela deritzat. Zer derizkiozue trikitixak Bizkaian eduki dezakeen etorkizunaz?

—L.B.: Nik Bizkaian mugimendurik ez dut ikusten. Oso talde gutti dagoelako. Eta zuk aipatu duzun bezala, hazten ez bada ez dugu ezer lortuko. Trikitixa agertokitako

gauza bihur ez dadila nahi badugu, betetik hasi behar dugu indar ematen.

P.A.: Bai. Gaur haur batek txistu jotzea leku askotan ikas dezake. Ikastoletan ere badabilta horretan. Zergaitik ez bultzada bat trikitixari?

—Azkenengo galdera hauze da eta bioi doakizue: zergatik jarraitzen duzue trikitixa jotzen?

—P.A.: Orain dela berrogei eta emeretz urte hasi nintzen panderetaz. Abotsa ona eduki dut eta oraingoz... badabil; beti gustatu zait honela ibiltzea eta oraindik luzaro ihardunen dudala itxaroten dut.

L.B.: Neuretako, gauzarik ederrena delako. Noiz arte? Hori ez da-

kit, baina osasuna edukiko dudan bitartean jarraituko dudala bai.

Hemen bukatu dugu bi aitona hauekin egindako elkarizketa. Beren baitan daramate guri ulertzeko hain zail zaigun zerbait. Beren giroan bizi izan ez garelako. Euskal izaerari hain erantsita dagoen folklore zati honek iraunen ote du gizarte honetan? Lortuko ahal dugu berpizkunde hori? Haiek, bederen, gure erromeriak alaitzen jarraituko dute eta prest daude edozein lekutara joateko. Esan digutenez, baten batek nahi badu haien lankidetzara, deitu besterik ez du egin behar, urrutizkin honetara: Urdurizko 99.

MENDIAGA



## Donosti-Currerki-Kutxa



### EUSKAI IRRATI SAIOAK

Banen baneko azikal  
Ongarri ta abonoak  
Belar Zuloak  
Erosi edo berritzeko diru aurreratzea  
Baserrri, lur-tresnak ta abar  
Torelavega'ko Perira joan etorriak

### Baserriaren alde



**YOGUR**  
**GURELESA**  
**GOGOZKOENA**



## GUZTIOK' BAT, S.A.

**Bilgiñak-Tornos-Tours-Lathes**

**URUTZPE**

EGOKIZ	— SALNEURRIZ	— SERBITZUZ	— EZAUGARRI ZABALDUA MUNDUAREN BOST ALDERDIETARA
CALIDAD	— PRECIO	— SERVICIO	MARCA DISTRIBUIDORA EN LOS CINCO CONTINENTES
QUALITE	— PRIX	— SERVICE	UNE MARQUE DISTRIBUEE DANS LES CINQ CONTINENTS
QUALITY	— PRICE	— SERVICE	A BRAND DISTRIBUTED IN THE FIVE CONTINENTS

GIZA TALDE BAT ELKAR-LANEAN, HERRI ATZERRIETAKO BURNIGINTZAREN SERBITZU BETEAN  
UN EQUIPO DE HOMBRES AL SERVICIO DE LA INDUSTRIA NACIONAL Y EXTRANJERA  
UNE EQUIPE D'HOMMES AU SERVICE DE L'INDUSTRIE NATIONAL ET ETRANGERE  
PEOPLE TO THE SERVICE OF NATIONAL AND FOREIGN INDUSTRY

Teléfono: 86 73 40  
Cables: GURUTZPE  
Telex: 36294 GUBAT E

ZESTUA (Gipuzkoa)

# UZTAPIDE HERRITARRAREN LIBURUA

Lehendik bertsoz osatutako liburu bat (Noizbait. Auspoa 42) plazaraturik bazuen ere, duela urtebete inguru, hitz lauzko bi alemardul argitara ditu Manuel Uztapidek. «Lengo egunak gogoan» da, dakizuenez lan bikain honen izenburua, eta zostoar batek hitz lauz eta euskaraz egindako lehen liburu dela esan dezakegu. Nik dakidanez behintzat, Zestoan ez da orain arte euskal liburugilerik sortu.

Noizbait behar, eta Uztapidek eskaini digu liburu bat. Ez nolana hiko gainera.

Zestoako festaburuak direla-ta, liburu honetaz zerbait idazteari bidezko derizkiot, eta luzamendurik gabe, hel diezaiodan hariari.

Irakurtzen hasi orduko, Manuel herritarraren oroimenak harritzen gaitu. Zer ez du gogoan gizon honek! Duela berrogeita hamar urte gertatu zitzaizkion baldin badira ere, «zapla!» botako dizkizu hutsik egin gabe.

Zortzi urte zituenean, Begi-Exkelaren bertso-paperetik ikasitako bertsoak adibidez, oso osorik jaulkitzen ditu buruz liburura. «Oraindik gogoan daukat gizonaren postura» esaten digu gainera.

Noiz nahi irakur ditzakegu gisa honetako esaldiak: «Milla bederatzireun da berrogei ta bederatzian zan au, Azaroaren ogeian», «Illeko ogei ta lau duro zeukala esan zidan», «Beste kuadrillan zebiltzanak, Antzorreikoak bi anaia, Jose ta Migel, ta Indoiturriko Angel ziran», «Eguneko amabi pezeta izaten zan... Aurten dira berrogei urte», «Ama Birjiña Martxoko eguna zan da elurra mardul egiten zuan», eta abar eta abar. Uztapideren oroimen harrigarriaren adierazgarri, kontu ezin ahala esaldi dago bi aletan barreiaturik. Bere gaztetako pertsonen izenak, gauzen prezioak, urte, hilabete eta egunen zehaztasunak, buruz hartutako bertsoak, zenbait lagun lehendabizikoz non eta noiz ezagututako argibideak, ehizeko gertakizunak... zer ez!

Gertakizunak bestetik, kronologia bati jarraituz ematen ditu. Urte-igarotzearen arabera ezartzen ditu paperaren bere bizitzako gora beheak. Herriz herri hasten denean ere, bera bertsoara joaten zeneko ordenan irakurriko digu Manuelen kontakizuna.

Baina guzi hau, umetatik hasitako memoria trebaketa baten ondorio dela esan behar. Zenbait gauza jasotzeko lapitza eta papera erabiltzen ohiago gaudenok, ez dugu oroimen-lanketa gehiegirik egiten, eta gertakizunak, subkonsziente ala ikonszientera izkututzen zaizkigu. Gero, denbora igarota, gertakizun horietatik konszientera ekarri eta berritzeko izaten ditugu komeriak; hartutako apunteak behar nahi-ta ez.

Uztapideri ez zaio horrelakorik gertatzen. Harek ez du apunte beharrik, garai batez zer ordu zen jakiteko erloju beharrik ez zuen bazalaxe: «Itzala onelako lekutara iritxiten zanean, ale! Ez genduan guk reloju bearrik izaten zer ordu zan igarritzeko», esaten digu. Ma-

nuelek, guzia konszientean dadukala dirudi. Izan ere, izkribuen laguntzarik gabe ohitu du bere burua, beste hainbat eta hainbat euskaldunek bezalaxe. Horregatik gara nire ustez, aho-literatura bikainaren eta idatzitako literatura kaxkarraren jabe. Euskaldunok, ez dugu mendetan zehar idazteko joerarik izan. Uztapidek berak, honela dio: «...ez degu guk alkar serbitzeko papalak firmatu bearrik izaten».

Bestetik, garai jakin batetan hartu du luma gure txapeldunak; ezinbestean, bertsoa kantatzeko gauzaten ez denean: «Ixillik ezin egon naiz eta nolabait bear det mintza», dio eskaintza bertsoan.

Idazteko joerarik ez horretan, badiu zerikusirik eskolak ere. «Guk eskolan zer ikasten genduan galdetuko luke zenbaitek, eta eze asko ez». «Eskolako liburuak ere erderazkoak izaten giñuzen... Guk, txinoa izanda bezelaxe konprentitzen giñuzen». Manuel Uztapideren bi esaldi hauek, garai bateko eta gaurko eskolen arrotasuna nahiz bidegabekeria garbi erakusten digute. Eta jakina, berari zegokion idatzitako literatura biderik ezean, oroimena landu behar; gertakizun guzien zehaztasunak, burmuineko almagenera pasa eta premia zegoenean almageneratik ateratzen ohi-tu behar. Dena dela, «Lengo egunak gogoan» liburuarekin, ez da Manuelen almagenera hustu. Berak aitortzen digunez: «...danak esaten asten bagera, bada lau liburu betetzeko aibat...», eta badakigu esatera honetan, erronka usairik ere ez dagoela. Ea bada, Manuelek lumari eraginda bigarren liburu eskaintzen digun, gure begien gozagarri.

— 0 —

«Lengo egunak gogoan» liburuaren bidez, garai bateko baserri giroaz ere ahar gintezke. Ume jolasetatik hasi eta nekazari, artzai, morroi, basamutil eta ikazkinen bizibideak, argi eta garbi zehaztuak daude orrialdeetan. Karobi, txondar, artazuriketa, artalde, gari-jotze, hauzolan, behi eta abarren aipamenak, ez dira falta. Guzi horietatik baliatu da Manuel bere bizimodu aurrera ateratzeko: baita fabrika bateko peontzaz ere.

Estu bizitakoa da Uztapide, gainontzeko baserriarrek bezalaxe. «Garai baten baserrian etxeko janarekin pasa egiten zan», idazten

du. Gosea asetzen bazuten amaika buruhauste. Nolanahi ere, naturaregin elkar hartuta bizi da baserri-tarra. Eiza, baso ederrak eta mendi gailurretako haize garbia ditu maite.

Baina, besteak beste, gerra denboran pasako zituen Uztapidek estuasunik latzenak. Gerrari buruz, aipamen batzuk egiten ditu Manuelek. Bigarren karlistadaz ari dela, amonak senarra liberal eta anaia karlista zituela esaten digu: «Orduan ere anaia alkarren kontra gerran!». Eta azkeneko gerrateaz, beste hau idazten du: «Ogei mutil «batallon de trabajadores» batera joan giñan, eskolta egitera. Ementxe Azpeitiko ta Orioko ta Donostikoak, berriz, asko mutillak zeuden batalloi artan». Anaia elkarren aurka ibiltze horrek, zenbait pentsamendu sortarazten digu. Agian, gosea berdintzen nahiko lan izango zuten garai hartan, gerran batzuen ala besteen alde egiteak zer esan nahi zuen eta zer ondorio ekar zitezkeen jakiteko. Baina, bere (geure) buruari harrira jardundako gehiegi ote zen iruditzen zaigu. Dena den, gaur egun ere horretako aukera bat egin beharko bagenu, ez genuke erroan batzuekin ala besteekin joan behar.

Eta gerrak utzita, gatozen Manuelen «Lengo egunetara».

Baserri eta euskal gizarte osoaren aldaketa nabari da liburuan zehar: «Gariak itaiakin ebakitzen zituzten», eta «Emendik aurrerako bertsolariak kotxean ibiliko dira» esaldiak alderatzea, argigarri zaigu teknikaren aldakuntzaz jabetzeko.

Bestetik, baserriak industriari gero eta gehiago begiraten diola, garbi agertzen digu Uztapidek adibide honetan: «Amezketan ere... baserriarekin bakarrik bizi danikan, ez da asko izango».

Baina, bizibidea bakarrik ez da ari aldatzen. Hizkuntza eta gizona bera ere bai. Bi aipamen hauek lekuko: «Euskerak naikoa larri ibilli bear du Enanin ere. Kanpoko jendea geiago jarri da erriko baño», eta «Orain ez dago alako gizonik. Oraingo gizonak utsarekin minberatzen gera».

Dena dela, Manuel bera, ez dugu hutsarekin minberatzen den horietakoa. Manuelek nonnahi, doan leku bakoitzean ditu lagunak. Gizon apartekoa, bakan horietakoa da Uztapide.

## ZESTOA



Nere andreak biotz ona du neretzat.

Bere liburuan, eskerrak ematen ez da aspertzen. Berari egin dizkioten mesede guziak eskertzen ditu; baina berak besteri egindakorik ez du aopate en, amaika aldiz urkoa lagundu izanagatik.

Zestoarrok ere, gutienez kale bat eskaini behar genioke, lehen bait lehen.

— 0 —

«Lengo egunak gogoan» idazlanean aipagarri den beste gauza bat, idazkera da. Manuelek, Oiartzun aldean erabiltzen diren hitz bat edo beste kenduta, Zestoako euskara egiten du. Gure hizketa berbera erabiltzen du, idazkera zehatz eta aberats batez. Esaldi laburrez baliatzen da. Hitz gutxitan gauza asko esaten dizkigu. Zenbait pertsonaren jitea eta portaerak jakin arazteko, berebiziko abildada du gainera. Begi Eskela, Txankarta, Arrola eta abarren deskribzioak, irakurtzekoak dira. Esan bezala, idazkera aberatsa du Uztapidek. Berak menderatben dituen gaietan, oso zehatza eta joserik dotorekoa. Ikus bestela esaera andana hau: «Alkar maiteak giñan gogotik», «Etzioik illuna etorririk!», «Jorran-da, gerrietako otz audirik gabe jarduten genduen», «egundo etsirik artu gabeko ganadoak ziran aiek», «Mende artzen giñuzen guk txondarrak», «Denbora bateko sutako lagatza baño ere aldapagoa zan bide ura», «...malda aundiak ditu. Ango sorroan otarra batek iges egiten badu, kostako zaizu berriz ekartzea», «Etorri mardula zuen arek», «...da lur estali izaten zan arrautza», eta abar.

Hain esaldi dotoreak osatu dituen Ohorezko Euskaltzain izatea, ez da harriztekoa.

— 0 —

Eta bukatzeko, bertsolariari buruz idatziko digu zerbait. Bertsolariaren txapeldun eta maixu bait da Uztapide.

Manuelen bizitza, bertsoz josia dago. Gehienez zortzi urte zituela, Begi-Exkelak ekarritako bertso-paperetik ikasi zituen lehen lau bertsoak, eta geroztik, amaika bota ditu bereak. Etorri handikoa izan da Uztapide. Nekerik gabe egin du bertsoan: «Nik bertso batzuk kantatzea ez neukan lantzat; neretzat jaia bezela zan ura», esaten digu. Baina, bertsoan erraz egingo baldin bada,

aurrez etenik gabe jardun egin behar. Bertsolariak bat batean bertsoa tajuz botako badu, aritu egin behar nahi-ta ez. Bestela, herdoilak hartzen ditu bere buru-etzarriak. Uztapideri ere, honelako zerbait gertatu zitzaion: «...bein ere egon naizen motelena nengoan orduan bertsoan. Gerratik etorri berria nintzan».

Hala ere, jarduteaz gainera, bada bertsolariari lagungarri gerta dakiokeen beste zer edo zer: entzulegoa, publikoa. Bertsolariak, entzule bertsozalea nahi du: bertsoa zer den dakiena; potoko txalotzen ez dituen; bere garaian isiltasuna gordeko duena. Izan ere, «jendeak entzitzen duan tokian, geiago saiatu ere egiten da».

Bertsolariak bere ahalegina jendeari eskaintzen dion bezala, entzuleak errespetoa zor dio bertsolariari. Bertsolariaren teknika eta legeak ikasten saiatu behar du; bere eran, bertsolari bihurtu behar du entzuleak. Bestela, Oteizak dioenez: «Bertsolariak duen zerbait bere barruan sentitzen ez duen euskalduna, gizarajo bat da».

Baina, nola osatzen du bertsolari batek, bat batean, bertso bat bere burmuinetan?

Doinu bat (neurri bat) aukeratzen du lehendabizi, eta azkeneko puntua (zorrotzena) asmatuko du. Gero, bere oroimen almageneratik azken puntu horrekin rimatzen duten beste hitz (zortzikoan, handian nahiz txikian ari bada) hitz atera eta gainontzeko puntuak osatuko ditu, atzekoz aurrera kantatzen hasi baino lehen. Horretarako gainera, segundotako tarte labur bat besterik ez du.

Bertsolaria beraz, entzuleen aurrean dagoela, bere barruko hibaian murgildu eta izkutatu egiten da, Oteizak diolen bezala; denborazko ritmoa duen hibai baten korrantean, erditutako bertsoa gero kantuz argitaratzeko.

BEGI



# ZESTOAKO UR ETA OLAK

Ihazko «amabirjinetarako» Jesus Altunak Ekaini buruz festa-egitarauan egin zuen idazlana iturri harturik, aintzinako zestoarren bizibideaz jardungo natzaizue aurtengoan, eta gai hau behar hainbat sakon eta zehatz aztertuko ez dudanez, aurrez barkamen eskea egiten dizuet herritarroi.

Aaipatutako idazlanean, Harri Haroko Goi Paleolitos aldian (orain dela 11.000 bat urte) Ekaingo gizakiak ehizetik bizi zirela garbi esaten digu Jesus Altunak. Izozte garaia zen hura, eta harpetan babesturik bizi zen jendea.

Ehiza zen beraz, garai hartakoen ogibidea. Arrantza ere bai ordea dirudienez. Izan ere Ekaingo harpean, izoki bat marratzua bit dago.

Bestetik, aztarren hauei esker dakigu gaurko Zestoa inguruko lurretan bizi zela jenderik.

Baina, hada Zestoa inguruan, horixe bera egiaztatzen duen eta hain ezaguna ez den aztarnategi bat. Harri Haroko Goi Paleolitos aldikoa hau ere, eta Ekaingoa bezalaxe, erreka baten ertzean dagoena: Aizarna parteko Errezabal ondoko Amalda aztarnategia hain zuten.

Ageri denez, errekak bazuen bere garrantzia ehiza erakartzeko.

Eguraldiaren izotzaldiak uxatu zirenean, harpetako bizilekuak utzi egin zituzten garai hartako gizonek, eta Neolitos aldian, abereak hezitzeari ekin zioten. Zaldi, ardi, behi eta abar hezi zituzten. Ehitari zen gizona artzai bihurtu zen.


Urteak igaro ahala, gizona bere erremintak hobetzen jardun zen. Lehen harriz egindako tresnak, tupiki eta burniz egin zituzten. Zestoan Burni Haroko lanabesik aurkitu ez bada ere, Gipuzkoan badira Burni Kultura baten arrastoak: Ataungo Jentilbaratzan adibidez.

Baina besteak beste, erromatarren garaian egin zuen burnilantzeak aurrerakadarak handiena Euskal Herrian. Erromatarren eragina nabarmena da Euskal Herriko burnilantetan. Izan ere, hor daude lekuko euskarak gaztel aniatik ez eta latinetik zuzenki jaso duen zenbait hitz: ingude, «incudis»-etik; mailu, «maileus»-etik; eta abar.

Burni lantzen ezezik, alea ehotzeko tresna egokiak egiten ere, iza si zuten euskaldunek erromatarrengandik: errotak egiten alegia. Garbi bait dago «errot» hitza, latinezko «rota»-tik (gurpila) datorrela. Burnilantetan zelata, ogibide berri bat sortu zen; olagizonena. Oletan lantzen bait zen meatzetatik zetorren burnia.

Gaur egungo Gipuzkoako jendea beraz, (zestoarrak barne) ehiztari, arrantzale, artzai eta gero olagizon izan dira mendetan zehar.

Harrigarri badirudi ere, nekazaritza oso beranduko da Gipuzkoan. Nafarroako Antso Jakinsu errege lagunduta etorri bait ziren lehen nekazari kaskoak Gipuzkoara, 1180. urtean Donostia «villa» edo hiribildu egin zuenean.



Santa Engrazi.


— 0 —

Baina, sarrera luze zamar hau utzita, lot gaxikion behingoz Zestoako ur eta olen arazoari.

Zestoa, 1383. urtean jaio zen, «villa» bat, hiribildu bat zen, eta bere harresi eta lau ateak zituen. Horretaz gainera, hiribilduko jendeak, bere lege, askatasun, agintari, alkate eta bizimodu berezia zuen. (Ikus ZERUKO ARGIA. 1974. go irailak 8koa; 601. aleko azken orria).

Baina, hiribilduan bizi ez zen jendea (eta Zestoan bazen, noski), feudalismo garaiko legeen arabera bizi zen: Jauntxo batzuen menpean.

Handizki aberats hauek, beren gudaridari eta guzi ziren. Ola eta erroten jabe ziren gainera, (Liliko jauntxoak eliza ere berea zuen) eta ez zuten begi onez ikusten hiribilduak erakitzeke joera hura. Konpondu ezinak baziren hiribildutak eta jauntxoaren artean. Zestoako herriagiri berberak, honela dio aizarnarek erregeri egindako eskabidea aipatzen duen pasarte baton: «...que ellos que non podian venir en la dicha parrochia por muchos males e daños que havia rescivido e resiven de cada dia de caballeros e escuderos poderosos de las comarcas de enrededor...». Liliko jauntxoak ere, izan bide zituen bere gorabeherak hiribilduko zestoarrekin, Sastarrain erreka ura zelaeta 1383. urtean.



Lili jauregia.

Izan ere, olak eta errotak eragiteko guzi garrantzizkoa zen erreka-ko ur lasterra. Gaur egungo petrolio eta elektrika indarraren pareko. Jauntxo eta hiribilduaren arteko ikusi ezinek, luzaro irauin zuten. 1733. urtean, Liliko etxeoandreak hauzitarra eraman zuen Zestoako udaletxea, elizako alkiren baten eseritzeko eskubidea zuela eta.

1782. urtean ere, zestoarrek Sastarraindik urak «Lau iturrieta»-raino ekarri nahi izan zituztenean, Liliko jaunarekin konpondu beharra izan zuten. Paper zaharrek diotenez, «...el caudal que venia a su ferreria se veria mermado...» zen hauziaren galkoa. «Ferreria» hori, burnia lantzeko ola da, noski.

— 0 —

Lehenxeago esan dugunez, jauntxoak aberats ziren. Liliko jauregia eta zituzten olak ikusi besterik ez dago. Hiribildukoak, behartsuago ziren. Harresiz inguratutako herri bat zuten; baina, egurrezko etxeak ziren gehienak. «Arretxe» izena, argigarri zaigu egur arazo honetan. Etxe guziak egurrezkoak ziren garaian harritzko bat egiten zenean, «Arretxe» edo «Ormaetxe» deitzen zioten, etxearen berezitasuna harriz egina izatea zelako.

Zestoan ere bazen «Arretxe» izeneko bat. «Arretxe Txiki» behinik behin, geure begiz ezagutu dugu, duela urte batzuk bota zuten arte.

Era berean, «Tellaetxe» izeneko etxeak, besteek ez bezala, sapaia teilaz estalia zuelako nabarmentzen zen.

Beraz, egurrezkoak ziren garai batean Zestoako etxerik gehienak. Eliza ere, 1549. urtean erre zen, egur asko zuelako noibat.

Iraetako zubia bestetik, egurrezkoa zen 1742. urterarte.

Nire ustez jauntxoaren aberastasuna adieraz dezakeen beste seinale bat ere badugu Zestoan: aurtan berrietua izan den Santa Engraziko dorrean, zehazkiago esan.

Esaerak dienez aharri batek dorrean igo zuen kanpaiak latinezko hitz batzuk grabatuak ditu. Hiru esaera osatzen dituzte hitz horiek, eta hauexek dira:

—A FULGURE ET TEMPESTATE LIBERANOS DNE. ANO D.N.J. MIDLI ESITENS. VI CARIUS DE VRVIETA JOANES DE LSCUBERRI ME FECIT.

—MENTEN SANCTAN ESPONTANE IN HONOREM DEO ET PATRIE LIBERACIONEM VOX MEA SIT. TERROR OMNIUM DEMONUM, VOX D.N.J. SONAT.

—ECCE CRUCEM D.N.J. FUGITE PARTES ADBERSE VICIT LEO DE TRIBU JUDA RADX DABID ALLA XPS VINCIT XPS REGNAT XPS IMPERAT XPS TENPESTATEM MALAN DESTRVAT.

1551. urteko kanpai hau, Joanes Lekuberri apaizak, Urbietako bikarioak egina dela dio, eta gure inguruetan, ez da Urbietako izeneko herriarik. Baina, garai hartan, hiribilduak bakarrik ez zituzten elizak; jauntxoek ere bizi zuten heurenak.

Dena dela, Santa Engrazi azpian, bada jauntxo aberats baten ola eta errotak eragiten zituen erreka bat: Alzolaras erreka hain zuten. Jauntxo honek, Lilikoaren antzera, bere jauregia zuen (Alzolaras jauregia, gaur Palazio deitzen duguna eta erreka dagoena), eta nire ustez, eliza baten jabe ere izango zen. Daittekena da, eliza hori gaurko Urbietako (Urbietako) baserriaren inguruan izatea. Urbietako hitzak gainera, bi ur elkartzaren diren lekua adierazi nahi du, eta Txiriboaga (Txigua), Urbietako aldean, elkar jotzen dute Alzolaras erreka eta Urola hibaia. Esanak esan, kanpaiak «VRVIETA» eta geroxeago dioten «PATRIE LIBERACIONEM» hitzak, sakonkiago aztertea merezi duela uste dugu. Errentxun jaunak eta agiri zaharrak eskaintzen dizkiguten argibideak ikasteko beta izango ahal dugu noibait.

— 0 —

Lehen esan dugunez, jauntxoek ola eta errotak zituzten beren mende. Errotak, ura behar ordea. Baita olak ere, ikatza eta burniaz gainera. Burnia, Bizkaitik itsasoz ekartzen zuten Gipuzkoara lantzerak. Zestoan lantzen zen burni guzia Bedautik zehar zetorren, Urola hibaia ertzeko bideetan gora. Ikatza, basotik ateratzen zuten, txondarrak eginda. Tonelada bat burni lantzeko, bost tonelada ikatz behar zituzten. Zestoa, olak ugari zirenez gero, basoz ondo osatua izango zen.

Burnia nola lantzen zuten jakiteko, Legazpia-ko «Mirandaola» ikus-tea da egokiena. Herriko jai nagusietan jarduten dira han burnilantetan, eta nik hemen esan dezake-danarekin baino askoz hobeto jabetuko zinakeke ola baten egituraz. Juan Antonio Mogel idazlearen «Peru Abarka» nobela irakurtzea ere, ez litzateke txarra horretarako.

Horietaz gainera, Joseba Intxausti idazleak, badu «Euskal ola zaharrak» izeneko lan interesgarri bat. «Lur eta gizon, Euskal Herria» izeneko liburuan Jakin editorialak argitaratua du.

Baina, gotazen Zestoako ur eta oletara berriro. Hiru erreka nagusi izan ditu, Urola hibaiaz gainera, gure herriak 1852. urterarte: Lasao erreka, Alzolaras erreka eta Sastarrain erreka. XIX. mendean, lehen herrikoia zen Arrua erreka ere, gehitu zitzaion.

Aipatutako lau erreka hauetan, olak ugari ziren. Errotak ere bai. Guk orain, adierazgarri diren baserri batzuen izenak ipiniko ditugu, lan honi amaiera emateko. Ola eta errota zirenak noski.

1. Goizibar eta Sastarrain errekan: Lili jauregia; Balzola; Balzola btrri; Olazabal baserriak; Olazar; Olagoiaga (Legoiaga); Olalde; Agineta (Agitta, errota zuena); Errotazar; Errotatxo.

2. Alzolaras errekan. Alzolaras jauregia (gaurko Palazio, erreka. Etxe honen harmarria jaso behar litzateke norabaitera); Alzola hauzoa (Alzola partean); Bekola; Mendiola; Olaso; Olalde; Errotatxiki; Txiriboaga (Txigua, lehen errota zuena) eta abar.

3. Lasao errekan. Otaola; Olaberri; Olabide; Olatxo; Errota; Elarritza (errota duena) eta abar.

4. Arrua errekan. Arruako ola (Arrugola); Oliden; Ibarrola; Leizola; Kasaola; eta abar.

Iraetan ere, bazen beste o.a nagusi bat, bertako jauntxoaren menpe. «Arduabeko Torre» izeneko etxean bizi zen jauntxo hau.